

Zeberioko Mendi Jardunaldiak zemendiaren 22ra arte

15. orrialdea

Konplizeak Antzerki Taldeak Itzuliko naiz lana estreinauko dau Igorren

Zemendiaren 22an izango da Lasarte Aretoan. Antzezlanak Areatzako bainuetxean topo egiten daben jatorri desbardineta bost andraren bizimodu eta bizitzaren ikuspegia kontetan dau. Taldeak berak sortutako lana da Igorren estreinauko dana. 16. orrialdea



Hainbat ekintza egingo dira Arratian Zezilia Deunaren omenez

16. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

328

2019ko zemendiaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Auzo kofradien ondasunak

Auzo kofradiak herri ondasunak gobernetan dabean administrazio erakunde zaharrak dira. Zeanurin esperientzia pilotu gisa eskrituratu dira

Altzusta eta Otzerinmendiko kofradien ondasunak. Angel Larrea historialariak erakunde zahar honeen historia dakarku. 10. 11. eta 12. orrialdeak



Zemendiaren 25aren inguruko ekitaldiak

Zemendiaren 25aren inguruan, mundu osoan egingo dira mobilizazioak eta sensibilizaziorako jarduerak. Izan be, feminismoaren laugarren olatuaren ezaugarrietako bat da munduko leku guztietara heldu dala feminismoa. Arratian, talde feministak, andra taldeak eta bardin-tasunaren aldeko erakundeak osotutako sarea dago, eta urtero lez, kartel bateratua antolatu dabe bailarako herrietako ekintza banagaz.

Zemendiaren 25eko manifestazioa Igorren izango da 19:00etan eta arratiar guztiak dagoz bertara deituta.

Aurreko eta osteko egunetan, filmak, antzezlanak, tailerrak eta abar, andren giza eskubideen urraketak begi bistan ipini eta gizarte mailan erantzuna emon beharra aldarrikatuko dabe. Herri askotan beste ekintza batzuk be egongo dira. 9. orrialdea



IGORRE

Aralucek burrukan jarraituten dau 141 lanpostuak mantenduteko

Egoerea gero eta latzagoa da. Zemendiaren 8an ordu txikietan sartu ziran Aralucen abogadu likidatzaileak, BATZeko langile batzuzak eta er-zainakaz eta fabrika zarratu eben. Gau haretan ustez jasotako "me-hatxuak, irainak eta erasoak" dirala eta salaketea ipini deutse BATZek Araluceko beharginai eta hartzekodunen konkursoa be martxan ipini dau. Honen aurrean, Aralucekoak greban dagoz euren enpleguak mantenduko dauzan urtenbide baten bila. 5. orrialdea



ARRATIA

Euskerearen Eguna, euskerea egunerokoa izan daiten

Abenduaren 3a, Euskerearen Nazinoarteko Egunaren harira, egunerokotasunean euskerea indartuteko hainbat ekintza antolatu dira Arratian. Euren artean, datorren urteko Euskaraldiaren aurkezpena egongo da; Igorren Euskeraren Egunean bertan eta Bedian abenduaren 9an, berbarako. Berbodromoa, berbaldiak, bideo emonaldia, Bideo Lehiaketako sari banaketea, bertso bazkaria eta beste ekitaldi askok, ospakizuna eta aldarria batuko dabe Arratian. 7. orrialdea



ARRATIA

Espainiako Kongresurako hauteskundeetan EAJ-PNVk lortu ditu boto gehien

Aprileko hauteskundeetan baino handiagoa izan da abstentzioa eta indar guztiak aurrekoan baino boto gitxiago jaso dabez, PPK izan ezik. Porzentajeetan barriz, EH Bilduk eta PPK ezik behera egin dabe beste alderdiek BEGITUREN eremuan.

Arratian bigarren indarra EH Bildu izan da, hirugarrena Elkarrekin Podemos eta laugarrena PSE-EE. Bizkaia osoari jagokonean, EAJ-PNVk hiru diputadu lortu ditu Espainiako Kongresurako, PSE-EEK bi eta Elkarrekin Podemosek, EH Bilduk eta PPK bana. Emaizta horregaz, EAJ-PNVko Josune Gorospe dimoztarrak jarraituko dau Madrilan. 5. orrialdea

Literatura txokoa

SUMINEZ ETA NEMESIS

Aspalditxo argitara emondako liburu bi oingo honetan: *Suminez* eta *Nemesis*. Philip Roth euskeraz, Nagore Tolosa eta Beñat Sarasolaren eskutik.

Konbenzino sozialen eta gizakien gurarien arteko burrukea. Zer espero eta zer gura. Porrota. Ezin eutsi klase ertaineko gizonezko judu-amerikar batek izan beharko leuken horri. Judu-amerikar izatearen kargua. Sexua, gordin-gordin. Gizonezkoen obsesioak. Personaje maskulinoegiak, misoginoak. *American Way of Life* dalakoak gizonezkoetan eragiten dauzan frustrazio eta ezinegona. Horrek dira Philip Rothek bere aldi guztietan behin eta barriro landu dauzan gaiak: *Portnoys Complaint*, *American Pastoral*, *I Married a Communist*, *The Human Stain*...

Bere kondizino eta izatearen miseria eta kontraesanak inok baino hobeto azaldu izan dauz Rothek. Alde patetikoak, aldiro ikatza baino baltzagoa izan leitekene umore eta ironiagaz txipritinduta. Kurioso da aurreko guztiengaitik hainbat aldiz kritikak jaso izana. Azken baten, zer da ba idazle bat? Ez dauz ba idazle batek bere antzekoak diranen miseriak agerian itxi behar? Ez da ba literaturearen funtzio nagusia gure kontraesanak eta miseriak kontetzea?

Suminez eta *Nemesis* lanetan Rothek bildurak, amorrua, minak, ardurabakokeria, sexuagaz topo egitea eta beste hainbat

kontu bilduten dauz. Seguruenik ez dira bere lanik ezagunenak, ezta esanguratsuenak be, baina honeek dira euskerara ekarriak daukaguzanak, eta oingoz honek konformau beharra daukagu. Roth maisua da istorioak kontatu, eszenak sortu eta narrazioa iruten. Goitik behera dominetan dau idaztearen artea.

Luzaroan eztabaidatu izan da zergaitik ez deutsuen inoz Nobel saria emon. Hainbat urtetan egon izan da faboritoen artean. 2018an hil zan, saria jaso barik. Baina ezin dogu ahaztu sariak askotan sariak baino ez dirala: momentuko interes, sinpatia edo ezinikusi batzuen araberrako errekonozimenduak.

Mikel Urkixo Aierdi


Nemesis

Philip Roth

Itzultzailea: Beñat Sarasola

Meettok, 2011

234 orrialde



Suminez

Philip Roth

Itzultzailea: Nagore Tolosa

Meettok, 2009

214 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Zemendiaren 18tik 24ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zemendi. 25etik abenduaren 1era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 2tik 8ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gomez Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 01 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi orduko behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi orduko

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduko

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzio burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzio taldea: Angel Larrea.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Itxurakerien
adornuak ete?

Udagoiena. Tantakada bat ma-trailletara jausi jat, eta ostean beste bat eta beste bat... ehunka... milaka... miloeka. Begiak zerurantz altxau eta laino grisak bere lekutxo hartzean hasi dirala konturatu naz.

Udagoiena. Euria. Zugatzak biluzten ari diran bitartean, guk geuk bakotxaren barnea goitik behera estaltzen dogu, badaezpada.

Bazter guztiak euritako morez, berdez, larrosaz, beilegiz, gorriz... beteten diranean, betaurreko moreak ateraten doguz andrakanako genero indarkeriaren aurrean; betaurreko berdeak aldaketa klimatikoaren ondorioez jabetzean; larrosak bular minbia dabenenganako hurbiltasuna azaltzeko; beilegiak lagun katalanen aldeko aldarrikapenakaz bat egiteko; gorriak Araluceko zein edozein enpresatara langileen burrukea aldarrikatzeko...

Euritako eta betaurreko ko-

loretsu horreekaz ozen oihukatzeke, abesteko eta jantzatzeke be kapazak gara, Santa Zeziliaren omenean, akaso. Baina ez gara uriolen eta potxingoen gainean plisti-plasta egiteko, ezta koloreetako katuskakaz be.

Euritako eta betaurreko moreak, berdeak, larrosak, beilegiak, gorriak... soka baten eskegi doguz, adornotzat, hori bai txukun eta dotore.

Udagoiena. Euria. Ingurua lo. Zugatzak bere biluzian indartsu, sendo eta tinko erreparatzen dira neguari aurre egiteko prest, katuska barik.

Gu, ostera, gure confort bizilekuan "kaiolatu" gara, gure burua entzungor eta ikusezin bihurtu arte. Non ete gagoz? Munduan barrena gor? Munduan barrena itsu?

Confort bizilekuan patxadatsu bizi gara artegatu barik, ezpada egun "solte" batzuetan.

Itxurakeria nagusi dan gizarte honetan geure/neure buruaren gerizpea deskubridu beharko geunke/neuke geure/neure printzipioen eta baloreen "ezezagun" bihurtu baino lehen.

Hauskorak dira euritakoak eta betaurrekoak eta ahulak gara gu. Ausardia elikatzen irakatsi beharko geunke... gaur... ez bihar... ez etzi.

Gaurko potxingoak eta uriolak etorkizuneko lehorreak bihurtu ez daitezkan.

Udagoiena. Euria. Ingurua lo. Bizia lo.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Palmirako ametsa

Batek daki nor zan etxe haretako hormaren ondoan Kaslasnikov-a itxi eban ha gerrilaria, beharbada Daesh edo Al-Nusra mobimentukoa. Berak be ez ekian. Gauza segurua zan, beste askok egin eben lez, Siriako lautada lehorretatik urten eta Palmirako urian su eta galdu sartu zala. Burrukak eragindako hainbeste keren artean miragarria zan uri historikoaren artelanak begizatzea, behintzat tankeak suntsitu ez ebezanak. Hango tenpluetako zutabe grekoak, hango marmol zuriko eskulturak. Behin Erromako inperioari oldartzeko ausardia euki eban Zenobia printzesaren uria sutan egoan, galduta. Gerrilari harek ez ekian nor izan zan leku haretako andre nagusia, ez eta basamortuko hareak erretako begiakaz ikusten ebazan tenplu, plaza eta antzokien hondakin zahar horreek be zer ziran. Ez eban bizitza osoan halangorik sekula ikusi. Ostera, baekian jakin leku fedebakoak zirala eta horregaitik suntsitu, desagertarazo behar ebazala, beste batzuk horrelantxe agindu eutsielako.

Gerrilaria intera batez neka-neka eginda sentidu zan, gelditu behar zan odol orgia haretan segiduko

baeban. Erabat birrinduta ez egoan etxe moduko baten sartu eta hango hondakinen artean atsedena hartzeako lekua topetan ahalegindu zan. Berehala konturatu zan leku ha ez zala arabiar baten etxea, diferentea zan. Bazter guztietan denporak beilegituta itxitako argazki eta paper txatal zaharrak ageri ziran. Baten Zenobia hotela aitutea lortu eban, eta data bat, 1930. Paperak mila zatitan puskatutako gutunak irudien, beharbada egun batekoak, eta danak frantzesez idatziak. Gerrilaria argazki zaharretara begira lotu eta atzanean lokartu zan. Loak ekarritako ametsa, baina, ez eban inoz ahaztuko, ulertu be ez. Bere gogotik arin baten pasau ziran Sinclair koronel britainiarra, Frantziako zerbitzu sekretukoak, opioagaz trafiketan eben aleman naziak, urre kontrabandista afrikarrak, Mekako harem-ak, eta danen buru kondesa euskaldun bat, Induraingo andrea, bere mosu pozoitsuakaz hamabost gizon baino gehiago hil ei ebazan Palmirako erregina, basamortuko sugegoria, Baionako neska pinpirin errebeldea eta korsarioa.

Ametsetik esnatzean, gerrilariak segitan eban zein mobimentutakoa zan jakin barik.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Tempus fugit. Konturatu orduko sei urte pasau dira Igorreko Kiñu Gaztetxea okupau ebenetik. Hori dala eta, zemendiaren 16an urteurrena ospatu eben Rockupa jaialdiagaz.

Horretarako egun osoko programea prestatu eben Gazte Bulegoa-gaz batera. Gazteak alkarregaz bazkaldu eben Gaztetxean, baina jaija herri osoan zehar zabaldu zan: poteo musikatua eta hainbat tabernatan egondako kontzertuakaz.

Tempus fugit eta Kiñu Gaztetxeak bere zazpigarren urteari ekingo deutso oin. Eta gaztetxan epemuga euki arren, Gaztetxeak ez. Izan be, okupau ebenen "enbor beretik sortuko dira besteak". Eta Gaztetxea gazte izango da beti.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48/142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Olotomologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentiloa 101
R.P.S. 3/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Bilkaidea, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 83 - 905 88 6 019

Troka
Luzeneko gurek
osena!
Luzeneko gurek
osena!
Luzeneko gurek
osena!

ZEANURI

Industria 4.0aren erronken gaineko jardunaldia Zulaibar Lanbide Ikastegian



Zulaibar Lanbide Ikastegia.

Erredakzioa

Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak, *Industria 4.0aren erronkak Lanbide Heziketa perfila duten etorkizuneko langileentzat* izeneko jardunaldia prestatu dau zehazkiaren 27rako. 10:15ean hasiko da eta bertan, Lander Sagarnak (Loop New Business Models), Jatsu Intxaurbek (BATZ S Koop.), Roberto Hernandok

(Velatia Group Tecnichapa) eta Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileak azalduko ditue erronkak. Landuko dituen gaiak, Industria 4.0aren erronkak etorkizuneko langileentzat, Industria 4.0aren erronkak autogintza industrian, Industria 4.0aren erronkak langileentzat Velatia Group Tecnichaparen ikuspegitik eta talde lanaren garrantzia izango dira hurrengo hurrengo.

ARRATIA

Espainiako Kongresurako EAJ-PNVk jaso ditu boto gehien gurean

Aprilaren 28an legez, zehazkiaren 10eko Espainiako Kongresurako

hauteskundeetan, Arratia, Ubide eta Zeberion, EAJ-PNVk lortu ditu boto gehien, 3.683 boto, aurrekoan baino 338 gitxiago. EH Bildu izan da bigarrena, eta 2.948 boto jaso ditu, apirlean baino 70 gitxiago. Abstentzioa %20,76tik %27,32ra pasau da.

	Errolda	Abstentzioa	EAJ-PNV		EH Bildu		Elkarrekin Podemos		PSE-EE		PP	
			Z10	A28	Z10	A28	Z10	A28	Z10	A28	Z10	A28
Arantzazu	307	%21,17	80	101	113	111	26	34	13	15	1	1
Areatza	891	%24,92	270	296	251	242	51	80	48	53	24	27
Artea	579	%22,11	218	225	167	184	37	41	9	22	8	12
Bedia	872	%29,59	319	355	124	124	76	88	46	59	16	18
Dima	1.132	%26,36	310	362	419	412	60	88	11	22	5	6
Igorre	3.121	%29,48	1.025	1.097	743	785	164	227	160	161	46	42
Lemoa	2.603	%29,58	744	805	552	585	213	260	182	218	60	47
Ubide	134	%29,10	22	23	59	54	5	10	5	4	1	1
Zeanuri	1.000	%23,90	370	418	289	281	59	71	13	19	10	8
Zeberio	874	%23,68	325	339	231	240	73	72	18	24	3	4
Guztira	11.513	%27,32	3.683	4.021	2.948	3.018	764	971	505	597	174	166

Erredakzioa

Hirugarren eta laugarren indarrak, Elkarrekin Podemos eta PSE-EEK behera egin dabe; PPK barriz arean gora. PPK 166 boto jaso ebazan apirlean eta 174 boto jaso ditu oingoan. Espainian emoitza onak ateratu dituan eskoi muturreko VOX alderdiak ostera BEGITUREN eremuan behera egin dau botoetan.

EH Bilduk Arratian boto gitxi

batzuk galdu ditu baina botoen porzentajea gora egin dau. Apirlean baino boto gehiago emon deus Arantzazun, Areatzan, Diman, Ubiden eta Zeanurin; EAJk barriz behera egin dau herri guztietan eta PSE-EEK be, Ubiden izan ezik. Elkarrekin Podemos, Zeberion izan ezik, beste herri guztietan behera egin dau.

Josune Gorospe

Arratian, Ubiden eta Zeberion,

Bizkaian gertatu legez, EAJ-PNVk apirlean baino boto gitxiago jaso ditu, nahiz eta porzentajea gora egin dauan Bizkaian. Ondorioz, EAJ-PNVko hiru diputadu, PSE-EEKo bi, eta Elkarrekin Podemosko, EH Bilduko eta PPKo diputadu bana izango ditu Bizkaia Madrileko Kongresuan.

Hori dala-eta, apirleko hauteskundeetan ostean legez, Gorospe dimoztarrak jarraituko dau Madril.

IGORRE

Araluce zarratu eta hartzekodunen konkursoa ipini dau martxan BATZek

Araluceko beharginak greban dagoz eta fabrikearen aurrean kanpamentua eratu dabe euren lanpostuen alde burrukan jarraituteko.

Erredakzioa

BATZek salaketea ipini dau Instrukzino Epaitegian Araluceko beharginak, "mehatxuak, irainak eta erasoak" egotzita. Oin zarratuta dago fabrika eta lanpostuak mantenduko dauan urtenbideren bat topatzea gero eta gaxagoa da. Zehazkiaren 8ko gauean, 01:30ak aldera, ertzainen laguntzeagaz, BATZeko langile batzuk eta abogadu likidatzaileak, Araluceraren ugazaben itxiera eskuan, zarratu egin eben Araluce. Harrezke-

rozitik zarratuta dago. BATZekoak trokel bat erosten saiatu ziran baina langileak materiala enpresan mantendutea lortu eben.

BATZen arabera, bezeroak eskatutako trokel baten bila joan ziran. "Bezeroak trokel hori exijiduten deusku. Ezpabere, auto barri baten merkaturatzea be konprometidu leike" dinoe BATZetik. Lan ikuskaritzak ez legaltzat jo eban itxiera hori eta BATZek itxiera kendu eta proposamen bat egin eutsan Aralucerari. BATZeko iturriak jakinarazotakoaren arabera, proposamenean,

trokelak entregetetako eskatu eta 10 egunerako lana eskaintzen zan, baita martiaren amaierara arte luzatzea disoluzino epea eta finantziazino apur bat emotea.

Aralucek ez eban onartu. Izan be, Araluceko Enpresa Komitearen arabera, denporea emoten eutsien bai, baina kaleratzea sinatu ezker. Horren aurrean, kontraproposamen bat aurkeztu eta greban ipini ziran. "Guk segiduan greba egitea ebatzi genduan, Araluce sartu ez daitezkan". Eta fabrikearen atean kanpamentua antolatu dabe lanpostuak defendidu guran.

Hori dala-eta, BATZek hartzekodunen konkursoa ipini dau martxan. "Euren malgutasun eza ikusi ez deusku beste aukerarik itxi" dinoe BATZetik. Eta zehazkiaren 14an, Instrukzino Epaitegian salaketea be ipini eben Araluceko hainbat beharginen kontra, "mehatxuak, irainak eta erasoak" egotzita.

Araluceko Enpresa Komiteoak lanetik botateaz gainera, BATZek gaizkile moduan tratatu dituala dinoe eta erakundeai 141 lan-

postuak mantenduteko laguntza eskatzen deusee.

Galderak legebiltzarrean

Zehazkiaren 15ean, Legebiltzarrean, Araluceko beharginen izenean, EH Bilduko Iker Casanova legebiltzarkideak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailburua dan Arantxa Tapiari, auzi honen aurrean Eusko Jaurlaritza non egon dan itaundu eutsan. Tapiak, enpresen eta langileen artean arazo pribadua izan arren, Jaurlaritzak tresnak dituala, "industria planean gure lan ildoetako bat arazoetan

dagozan enpresari laguntza emotea, bidelagun izateko eta baliabiak jartzea" dala eta "lanean diharduela" esan eban.

Udaletxeetan be mozinoak sartu ditu Araluceko Enpresa Komiteak enpresea ez zarratuteko laguntzea eskatuz. Arantzazu, Areatza eta Lemoan tratatu da gaia. Arantzazun aho batez onartu zan eta Areatza eta Lemoan EH Bilduren botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzioagaz onartu zan mozino. Areatza eta Lemoan EAJ-PNVk beste mozino bat aurkeztu eban eta hori aho batez onartu zan herri bietan.



Araluceko langileak Legebiltzarrean.

ARRATIA

Zortzi eguneko grebara deitu dabe metalgintzan

Erredakzioa

Bizkaiko metalgintzan ordezkaritza daukien zortzi sindikatuak egin dabe deialdia, patronalagaz (FVEM) egindako bileretan akordioak ez dalako lortu. Egun osoko lan-ixteak erregistrau dabez Eusko Jaurlaritzan, zemendiaren 28 eta 29 eta abenduaren 4, 5, 12, 13, 18 eta 19rako.

Metalgintzan ordezkaritza daukien sindikatuak ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT, USO eta CNT dira. Euren arabera negoziatzeko proposamenetik urrun dagoz patronalaren jarkerak. Proposamenez gainera, sindikatuak, enpresa batek bes-



te bat erostean beharginakaz daukazan obligazioak mantentzen beharra arautu gura dabe.

ZEANURI

Asterriako San Andres jaiak zemendiko atzen bariku-zapatuan ospatuko dira

Erredakzioa

Zemendiaren 30ean San Andres eguna ospatuten da eta jaiak dira Asterrian. Aurten zapatua da eta bezperan eta San Andres egunean bertan, auzokoakaz ospatutako moduko jaiak prestatu ditue.

Zemendiaren 29an, San Andres bezperan, barikuan, emongo deusie hasikerea jaiari, arrastiko 18:00etan, bolanderak jaurtiz. Ondoren, herriko trikitilari eta panderojoleak ipiniko dabe jaigiroa. Gero, 19:00etan, Igel Txapelketea egongo da eta irabazleak Etxauriko babea eta arrautzak eta Asterriako txokoko txorizoak izango ditu sarizat. Auzo afaria 21:30ean izango da eta afalos-

tean, bingoa eta euskal tribialean neurtuko dira.

Hurrengo egunean, eguerdi partean ermita inguruan batuko dira auzokoak. 12:00etan, mezea egongo da eta ostean herriko txistulariak eta barauskarria. Arrastian herri kirolak hartuko dabe protagonismoa. 18:30ean, Irati Astondoa azkoran eta Mikel Etxebarria ardi mozten neurtuko dira biko desafio original baten eta 19:00etan, Harriti giza probetako andra taldeak hordagoa botako deutse Zeanuriko mutilai. Odoloste janagaz indarrak barritu 20:30ean eta 21:00etan, gau jantzaldiari ekingo deusie. Lehenengotik Jainaga eta Narbaizak ipiniko ditue auzokoak jantzan

eta ostean, DJ Tertzioan Ezeraren txandea izango da.

Zapatu arrastian, jaietan moztortuta parte hartzera animetan dabe antolatzaileak.



ARRATIA

Landu bako lurra Lurren Funtsan ipinteko kanpaina zabaldu dau Bizkaiko Foru Aldundiak

Erredakzioa

Landu barik dagozan lurra lanean ipinteko sortu zan Bizkaiko Nekazaritzako Lurren Funtsa, "landa ingurune bizia, lehen sektore lehiakorra eta ingurune naturalaren jasangarritasunean lagunduteko" helburuagaz. Lehen sektoreko profesionalai lur gehiago eskaini ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak kanpaina bat abiatu dau landu bako lursail jabeen eskaintzaile moduan izena emon dagien Lurren Funtsean. Horretarako, Arratia, Ubide eta Zeberio eskaintzaileak Gorbeialde Landa Garapeneko Alkartera jo behar dabe. Lurra abeltzaintzarako lurra edo nekazaritzarako soloak izan behar dira, basoak ez dira sartzen.

Gorbeialden, lurra eskaintzen dauanari, azaldu egingo deusie proiektua lehenengotik. Gero, lurren kastastroko datuak emon beharko ditu jaubeak. Datuok Foru Aldundira bialduko ditue eta han aztertu ondoren, batzartu egingo dira Foru Aldundiko eta Gorbeialdeko teknikariak jaubeagaz. "Lur Funtsearen funtzionamendua Etxebideren antzekoa da. Bere helburua ez da partikularren arteko kontratuak apurtzea. Hau, lurra egoera onean bueltauko jakiera eta alokairua jasoko dabela bermea gura daben jaubeak zuzenduta dago" azaldu deutso BEGURI Bingen Larizgoitia Gorbeialdeko gerenteak.

Nekazaritza bultzatzeko

Sistema honen bidez landa ingurumen degradazioa saihestu eta lehen sektorea bultzatu gura da. Lur Funtsean nekazari edo abeltzain profesionalak hartu lekie

lurra alokairuan, nekazari barriak edo lanean diharduenak baina lur gehiago behar dabenak, hain zuzen be. Hau da, nekazaritza eta abeltzaintzatik bizimodua ateratu gura dabenentzat da.

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

begitu
arratia ubide zeberio

**Tizu,
banoa eta!
Atzen egunak,
atzen
bularretakoak!**

Galanta lentzeria
Agirre Lehendakaria 23 · Igorre
94 631 90 08

ZEANURI

Jaieguna Gorbeian eta Zeanurin jaikun

Erredakzioa

Gorbeiak, Gorbeialdek eta Gorbeialdeko Kuadrillak, Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz, egun osoko jai egitaraua prestatu dabe zemendiaren 23rako, Gorbeian dagoan Zeanuri ezetuten emoteko eta bertako paisaje eta gastronomiagaz gozatuteko.

Holan, jaiegun edo jaikunea, Undurragako urtegi ibilbide gidatuz hasiko da. Ordu biko ibilbidea 11:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da. Partaideak bus garelakuan batuko dira, alde aurretik Info Gunean tiketak erosita.

Gero, 13:00etatik 14:00etara, txakolin dastaketea egongo da. Bertako gastronomia ezetuteko, bazkal eta afalaurretik pintxo potea egin ahal izango da Zeanuriko tabernetan, 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

Guneak

Jai giroa zabalduko, egitarauaz gainera ekintza berezietarako hainbat gune egongo dira herrian. Holan, Haur Gunean, umeak marraztu, Gorbeialdeko mapea koloreztatu eta kareta egin ahal izango dabez beste gauza batzuen artean, arrastiko 16:00etatik 18:30era. Mobidutea gehiago gustetan jakienentzako rokodromoa eta ohe elastikoak egongo dira Multiabentura Gunean ordutegi berean.

Ikuskizun Gunean barriz, antzerkia eta musika egongo dira. *Kalean otso, etxean uso* antzezlan egongo da ikusgai 17:00etan eta 18:30ean, Berritzu erromeria taldearen musikeak ipiniko dau jaigiroa.

Info Gunean, 18:00etan, *Artzantza* teaser-aren 4 pase egingo dabez. Gorbeia inguruko produktuez osotutako otzarak be zozketatuko dira.

ARRATIA

Euskerea indartuteko hainbat ekintza Euskerearen Eguna dala-eta

Abenduaren 3a Euskerearen Nazinoarteko Eguna da eta urtero legez, Arratian jaigiroan aldarrikatuko dabe euskerearen erabilera, euskeraz bizi ahal izateko.

Aurten, bizitzako arlo guztietan euskeraz egitearen garrantzia agerian ixten dabe antolatutako ekintzak.



TIKETAK SALGAI: SAGARNAN, JUBILATUEN TABERNAN, ARTEAKO HERRIKO BERTAN.

edo mezu TELEFONAZ: 665727881

Erredakzioa

Holan, Lemoan, indarkeria matxistez berba egiteko berbodromoa antolatu dabe; Igorren, esaera zaharren eguneroko erabilera erakusten daben Bideo Lehiaketaren sari banaketea egongo da eta Bedian, datorren urteko Euskaraldiari begirako lanari ekingo deusie. Zeanurin, Lapurdiko Baigura Ikastolari lagundutako egitaraua prestatu dabe, besteak beste.

Euskerearen Eguna ospatuten goiztiarrenak lemoaztarrak izango dira, zemendiaren 29an, hain zuzen be. "Aske maite, aske bizi"

lelopean berbodromoa antolatu dabe Kulturgunean, 18:30ean. Han, Euskerearen Eguneko aldarriak eta zemendiaren 25eko inguruko indarkeria matxistez gaitutako aldarriak bat egingo dabe. "Generoagaz lotutako gaiak euskeraz mahai gaineratzeko tartea izango dogu bertan. Euskeraz ez dakienak be euren lekua izango dabe, beren-beregi talde bat erderaz egiteko prestatuko dogu-eta" azaldu deusie BEGITURI Miren Madariaga Lemoako Euskera Teknikariak. Ondoren, 20:00etan, poteo girotua egongo da Atxetatik hasita eta 20:30ean zozketea.

Hurrengo egunerako, hilak 30,

hainbat ekintza antolatu ditu bere lokalean Zeanuriko Eguzkiola Kultur Alkarteak, Lekorneko (Lapurdiko) Baigura Ikastola aurrera ateraten daben lagun talde batek. Egunaren helburuak, Lapurdiko ikastola txiki horren egoera ezetuten emotea, baita, euskerearen egoera Iparraldean be, eta ikastolarako dirua lortzea dira. "Baigura Ikastola, Lekorne, Makea, Heleta eta Lekuineko guraso batzuen beharragaz sortu zan. Euskerea eta euskal kultura zabaltzea, haurrak euskeraz gogoetatzea eta komunikatzea, baita be bizitea, amestea, jolastea eta handitzea. Baina Iparraldean euskeraz ikasteko zailtasunak ez dira gitxi, beste batzuen artean finantziario eta irakasleen falta" azaldu deusie BEGITURI Eguzkiolatik. Egun horretan, goizeko 11:30ean, erronkariaren gaineko berbaldea egongo da, Alberto Angos aditua eta atzen hiztunaren eskutik, *Iguzkiolateko uskara* izenekoa. 14:30ean, bertso bazkaria. Bertsolariak Ortzidoate eta Arkaitz Estiballes izango dira eta bazkalostean, 17:30ean, kantaldia egongo da Kantu Bat Gara taldeagaz.

Ez dira Zeanurin egingo diran Euskerearen Egunean inguruko jardura bakarrak. Izan be, zeanuriztarrak aurretik, egunean bertan eta ostean ospatutako ekintzak prestatu ditue. Euskerearen Egunean bertan eskolan, kantu batzuk kantauko ditue umeak eskolatik urtetean eta ostean txokolate jana izango dabe. Eta 17:30etik 19:30era udaletxean, abenduaren 15erako programau-

ta dagoan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako sarrerak salduko ditue.

2020ko Euskaraldiari begira
Euskerearen Egunean, abenduak 3, Igorrekoak, Euskaraldiagaz lotutako bizipen eta desioak idatzi eta eskegi ahal izango dabez 18:00etatik 19:00etara horretarako Kultur Etxeko plazan prestatutako dan sare baten. 19:00etan, ekitaldi bat egongo da Kultur Etxean. Bertan, *Inbiu 2019 iruditant*, esaera zaharren bideo emondia eta sari banaketea egingo da eta Euskaraldia 2020ren aurkezpena egingo da.

Inbiu Eguna, urri lehenengoaren 21ean egin zan "Euskeraz gara" lelopean. Orduan agertu ziran Igorreko zebrabideetan Arratian asko erabilten diran 14 esaera zahar eta horreen erabilerearen gaineko Bideo Lehiaketea antolatu da. Zemendiaren 29ra arte, lehiaketan parte hartzeako lanak bialtzeko epea zabalik dago. Minutu bateko bideoa grabatu eta *eskerazarrak@igorre.net* helbidera bialdu behar dabe parte hartu gura dabenak. Gero Euskaraldiaren aurkezpena egingo da.

Baina Euskaraldiaren aurkezpena ez da bakarrik Igorren egingo. Bedian be, abenduaren 9an, Euskaraldiaren antolatzaileak liburutegiaren egongo dira arrastiko seiretan, azalduten 2020ko Euskaraldirako zeintzuk diran emon beharreko pausuak eta egin beharreko ekintzak. Baita batzorde baktotzak zer egin ahal dauan.




Ekonomia Ituna
zerikusit handia... nirekin!

Eta euskal herritar guztiekin; izan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorroztasunez eta sentsibilitatez kudea ditzakegu-eta euskal baliabide eta zerbitzu publikoak.

Euskadi, nuzolana, bien comin

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OGASUN ETIA EKONOMIA SAILA DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMIA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko
makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net



ARRATIA

"Nik sinisten dizut" izango da aurten zemendiaren 25eko leloa Arratian

Zemendiak 25, Andrankanako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunaren harira, urtero lez, Arratiako mobimentu feministea osotuten dauan sareak, bailara osorako kartel bateratua prestatu dau, herriz herri, ekintzaz ekintza, indarkeria matxistearen kontra egin dagian jendarte osoak.



Erredakzioa

Horrezaz aparte, herri askotan beste ekintza batzuk be egingo ditue. Izan be, andren kontrako indarkeria, bardintasan ezaren adierazpen larriena da eta mundu osoan zehar egiten dan Giza Eskubideen urraketea. Manifestazioa Igorren izango da 19:00etan, Kultur Etxeko ezkinan batuko dira.

Arratiako kartekeko lehenengo ekintza, hilaren 18an izango da,

18:30ean, Bediako liburutegian eta umeai zuzendutako antzerkia izango da. 7 eta 13 urte bitartekoentzat gomendatzen da. Izan be, topiko sexistakaz apurtu gura dauan ume eta gaztetxoentzako komedia azkarra da. Esketx moduko eszena laburretan zehar, parekidetasunean bizitea zailtzen daben egoerak, umorez, ipiniko ditu begibistan, jolasa eta musikea erabiliz.

Hurrengo egunean, hilak 19,

Artean, Bertha Gaztelumendik zuzendutako *Volar* dokumentala ikusteko aukerea izango da. Hemen, tratu txarrak bizi izandako andrazkoak euren esperientziak eta egindako bizi ibilbidea kontetan dabe. Pelikulearen ostean, protagonista baten testigantzea eta solasaldia egongo da.

Hilaren 20an, eguaztenean, 18:00etatik 20:00etara, Zeanuriko Kultur Etxean Zine Morea izenpean, feminismoagaz loturea daukan pelikularen bat egongo da ikusgai.

Zemendiaren 22an, barikuan, Arantzazuko Kultur Gunean, Arratian lehenago ikusi ahal izan dan antzerki hunkigarri eta gogorra, gordin eta zorrotza barriro ikusteko edo lehenengoz ikusteko aukerea egongo da: *Tomiris. Mendeku zilegi baten istorioa* da Atx Teatroak ekarriko dauana. Istorio honek, biolentzia matxistea dauka gaitzat eta errealidea eta fikzioak buztartzen ditu.

Hurrengo ekintza gazteai zuzendutakoa izango da. Hilaren 23an izango da Igorreko Kiñu Gaztetxean

10:30etik aurrera eta Beldur Barik filosofia transmitiduten jarraitutea dauka helburutzat. Izan be, aurten ez da Arratia mailako Beldur Barik Bideo Lehiaketarik antolatu, baina Oihane Zulet Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasan Teknikariak ezinbestekotzat jotzen dau filosofia hori landuten jarraitutea. "Ebaluaketea egin genduan Gaztelekukoakaz igaz eta Beldur Barik programea gazteakaz lantzea oso garrantzitsua bada be, somatu genduan lehiaketea, tresna legez, zaharkitu egin dala, gazteak nekatu egin dirala, ez daukiela motibaziorik. Eta bideoa egitea bilakatu da betebehar bat eta inpaktua galdu dau". Aurten, egun osoko topaketea antolatu dabe. Kiñu Gaztetxean lau txoko prestatuko ditue. Bat izango da Sormen Txokoa eta han egongo dira Torontilekoak. Akaso, Gaztetxeko horma bat margotuko dabe, serigrafia egin, zemendiaren 25eko manifestaziorako pankartak, eta abar. Beste txoko baten Jair izeneko kick boxealariak kirolak, indarra eta andren gorputzen gainean jardungo dau, kickboxing saioa eskaintzeaz gainera. Beste txoko bat bortxaketearen kulturearen ingurukoak izango da. Eta laugarren txokoa zaintzaren ingurukoak sukaldaritza hartuko dau gaitzat eta bertan bazkaria prestatuko dabe Beñat Madariaga sukaldariaren laguntzeagaz. "Bazkalostean idea da Beldur Barik Bilbon egingo dauan topaketa orokorrera danok alkarregaz joatea". Topaketea Bilboko Azkuna Zentroan izango da 16:30etik aurrera eta bertara be joango dira Beldur Barik-en parte hartu daben

Zeberioko gazteak.

Areatzan, hilaren 27an, Udalak eta Gure Sarea Elkartek antolatuta, *Bostetatik bat? Haur eta gazteen kontrako sexu abusuen sekretua hausten* berbaldia egongo da 18:30ean Udala Aretuan.

Hurrengo egunean, Diman, 19:30ean, Abaroa Aretuan, *(Des)kontrolatuta?* lana antzetzuko dabe Iratxe Urkiagak eta Karmele Larrinagak. Terapeuta eta paziente baten papera jokatzen dabe eta galdera bat egiten dabe jentaurrean, "zergaitik aguntau behar dogu hainbeste?".

Hilaren 29an, 18:30ean, Lemoan, "Aske maite, aske bizi" izenpean berbodromoa antolatuko dabe. Andrankanako Indarkeriaren Kontrako Eguna eta Euskerearen Egunaren atxakipean, aldarrikapen biak buztartu gura ditue. Bertan, bardintasuna, indarkeria matxistea eta maitasun erromantikoren inguruan, besteak beste, egingo dabe berba partaideak.

Zeberio

Zeberion, Garaitza alkartearen eskutik, *Umeak ez dute gezurrik esaten!* berbaldia antolatu dabe zemendiaren 22rako, umeak sufriduten dabezan abusu sexualen gainekoa. Arrastiko 19:00etan izango da udaletxeko 2. solairuan. Hurrengo egunean, Beldur Barik-en parte hartu daben gazteak Bilboko Topaketara joango dira.

Horrezaz gainera, Zeberioko Udaleko Bardintasan Zerbitzuak zemendiaren 25ean, Bilboko manifestaziora joateko deialdia egin dau.

IGORRE

Igorrek 2020ko aurrekontuak onartu ditu

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 28ko Osoko Bilkuran onartu zan 2020rako aurrekontua EH Bilduren aldeko 6 botoakaz eta EAJ-PNVren 5 zinegotzien abstentzioagaz, kontuon arabera, Udalak ia 5 milioe kudeatuko ditu, 4.973.865 euro, hain zuzen,

Arlo sozialeko partidak mantentidu egiten dirala, bai enplegua mantentiduteko, baita arlo sozialean be azaldu deutso BEGITU ILLART Gumuzio Igorreko alkateak. Inbersinoai jagokienean, igazko moduan egingo dabela dino alkateak; hau da hasikerako aurrekontuan partida txiki bat ipini dabe erremanenteagaz osotuteko asmoz.

Mahai gainean daukiezan proiektuak, asfalto kanpaina, Gazteguneko proiektuaren erre-

dakzioa, Gezalako oinezbidea, kiroldegiko bigarren fasea, eskolako patioko lehenengo eta bigarren faseak, txirindulari alkartearentzat aterpea eta urbanizazio konponketak dira.

Herritarrak eskatutako proiektuak

Asfalto kanpaina eta urbanizazio konponketak aurrekontu parte hartzaileetan jaso dabezan eskaerak dira. Asfalto kanpaina herriko hainbat bideren konponketea da eta urbanizazio konponketak be antzera baina espaloiak eta. "Aitaturako bi proiektu honeek aurrekontu parte hartzaileetan urten ziran. Horren ondorioz azterketa bat egin da herrian, identifikatu eta memoria batera ekarri dira eta asmoa da abenduaren erditik aurrera, Kultur Etxeko Erakusketa Gelan memoria hori erakusketa publikoan ipini eta

guri jentek esateko hau ahaztu jatzu edo hau gehitu, proiektuan txertatu daiguzan".

Gazteguneko proiektuaren erre-dakzioari jagokonean, zemendiaren 25ean Lehendakari Agirre kalean dagoan lokal handi bat erosteko asmoa dauka Udalak eta datorren urterako hor barruko proiektua erredaktetea. "Asmo hori dator gazteakaz egindako parte hartze prozesu batetik. Gure asmoa da, espazio handia danez, zati baten Gazte Leku bat eukitea eta beste aldetik sukaldariz indus-triala, ze gaur egun egiten diran sukaldaritza ikastaroak txokoetan egin behar izaten dira" dino Gumuzio.

Ziklista Elkartek gero eta ikasle gehiago daukaz, material gehiago dauka eta txiki geratu jako bulegoa, bertan gordetzen dau materiala eta urte batzuk daroetz eska-

tuten aterpe bat garajea eukiteko eta materiala gordetako. Proiektua eginda dago.

Eskolako patioaren berrantolaketea be eskoleagaz eta eskolako umeakaz landu zan. Betiko lez, udako oporrak aprobetxauko dira aldaketak egiteko. Lau fase-tan dago bananduta eta asmoa da 2020ko udan 1 eta 2 faseak egitea.

Oin dala urte bi kiroldegia barrutik txukuntzen hasi ziran. Alde bat eginda dago eta bestea falta da. Datorren urtean hori egiteko diru partidea dago aurrekontuetan.

Gezalako oinezbideari jagokonean, 2019an ziran egiteko baina, alkatearen arabera, Udalak azokoakaz ikusi eban gauza batzuk oindino hobetu ahal zirala eta horreek aztertuten dabiz. Aztertu ostean barriro auzokoakana joko dabe ia ze mailatan bete diran eskaerak ikusteko eta 2020an egiteko asmoa agertu dau alkateak.

Goitiko estimazioa

EAJ-PNV abstentidu egin zan eta

horretarako errazoiak azaldu ebezan Osoko Bilkuran. Euren ustez, gastuak goitiko estimazioa ditue, erremanentea hazi arazoz. "2020rako aurreikusten diran gasturako partidak, goitik estimatuta dagoz. 2020an ez dira agortuko eta, ekitaldi berean errekursoak aplikatu beharrean, hurrengo ekitaldirako soberakin edo erremanentea sortuko dauz. Hain zenbaterako handietan, horrek esan gura dau, kudeaketa faltea egon dala".

Diru sarreren kudeaketeak be kezkatzen ditu jeltzaleak, aurrekontuetako eta ejekututakoaren artean aldeak dagozalako eta azalpenak eskatu ebezan.

EAJ-PNVk bere proposamena lau arlotan ardatzu eban: "kapitulu desbardinetako errekurso erre-akal azalera atara", "adostasuna daukien proiektuak lehenestea", "enpleguaren sustapeneko zerbitzu eta ekintzak eta enplegua sustatzeko diru laguntzen partidak gora egitea" eta "sarreren arloan udal zergen eta tasen azterketa sakona" egitea.

AUZO KOFRADIAK

Auzo kofradiak

Auzo kofradiak herri ondasunak gobernetan dabezan administrazio erakunde zaharrak dira, eta oindino be Bizkaiko herrietako eta oro har, Euskadiko auzo kopuru handi baten konserbetan dira.



Otzerinmendiko San Justoko ermita.

Angel Larrea Beobide

Sarrerea. Historia apur bat egin daigun. Ahozko tradizioaren arabera, gure edadekoen ahotan entzunda, auzo kofradiak elizateak baino lehenago sortu ziran, Erdi Aroko erdiko mendeetan. Gatxa da auzo kofradien antxinatzen hori baieztatzea. Segurtasun handiagagaz esan daiegu Behe Erdi Aroaren amaieran eta Aro Modernoaren hasieran, hau da, XV. mendeko atzen hamarkaden eta

XVI. mendeko lehen hamarkaden artean, auzo kofradiak Bizkaiko landa eremuetako bizitzan dagozala. Beste horrenbeste esan daiteke Arabari eta Gipuzkoari buruz, non auzo kofradiak "kontseju" eta "ermandade" deitzen diran, hurrengo hurrengo.

Hainbat dira aitatuko doguzan puntuak, eta auzo kofradien sorrera adierazoten ez badabe be, bai adierazoten dabe Erdi Aro berantiarrean finkatu ziralda:

1) 1452. urtean Batzar Nagu-

sietan Bizkaiko "Foru Zaharra" deritxana onartu zan. Bertan, *hidalgo*aren figura zentrala da; izan be, lege-testu horretan jasotako eskubideen jaube eta ondasunen jaube da, eta herentzian itxi ahal izango ditu. Holan, gizon gerlarien Erdi Aroko klanak bidea ixten deutsee gizonekoai orokorrean, aurrerantzean euren bizitzak eta ogasunak Foru Legearen babespean gobernau daiekizan gizabanakoai.

2) "Jauntxoan" eta banderi-

zoen leinuen arteko bando gerraren amaierak bakea ekarri eban, edo gitxienez, egonkortasun sozial handiagoa, momentu aztoratuak bizitzen denporea erorian Bizkaia haretara. Errege-erregina Katolikoak tronura heldutean eta aurrez aurre egozan alderdietako buruzagiak erbestertzeko zigor neurriak ezartzean, burruka bortitzak amaitu ziran.

3) Gerra horreen amaieragaz batera, baserriaren agerpen orokorra gertatzen da, eta horrek erabat aldatuten dau landa erakundearen konfigurazioa. Baserria, bizitegi eraikuntza bat da, familia ekoizpena eta konsumora bideratua, eta etxe bat eta hainbat baso eta lur hartzean dauz. Etxeari etxaldea esaten jako, eta etxearen basoai, etxe-basoai.

4) Auzoko ermiten sorrera. Zerbitzu edo gurtza kristaua funtsezkoa zan etxeo bizilagunen artean. Tenplu txikien eraikuntza, helburu erlijiosoa beteteko egin zan. Tenplu horreei eusteko zenbait ondasun emon jakiezan: tenpluari erantsitako gela xume bat ermitauarentzat, edo etxebizitza bat; beste kasu batzuetan, kanpai-jole/sakristauarentzat edo serora/freilarentzat, jagoteko ardura eukienak, eta inguruan kokatutako mendi edo zelairen bat, zugazti eta/edo laborantzeagaz. Ermita horree-

tako askok elementu artistikoak ditue fatxadan, esate baterako, sartzeako ateak edo leihoak, gotiko berantiarrekoak. Kronologikoki XV. eta XVI. mendeen artean kokatzen doguz. Egia da ermita honeen aurretik tenplu kristauak egon ziralda: eleiza partikularrak edo patronatukoak eta izakera pribaduko ermitak, gehienak Erdi Aroko jaunena, euren debozinoko santu jakin batzueganako altxautakoak.

Arratian, horren adibide dira Urkizuko (Igorre) San Bartolome baseliza desagertua dagoana, edo Alzustako (Zeanuri) Santa Luzia baseliza, eta Lamindaon (Dima) eta Ipiñan (Zeanuri) dagozan patronatuaren eleizak. Bestalde, elizateetako parrokia eleizak baino lehenagoko eleiza txikiak daukaguz, antxinako parrokiak, hain zuzen; berbarako, San Kristobal eta Santa Luzia Elgetzun eta San Andres Zumeltzun, biak Igorren, edo Alzustako San Migel eta Otzerinmendiko San Lorentzo Zeanurin. Auzoko ermita askok, baita Erdi Aroan sortutako parrokia funtzioa eukien tenpluak be, aitatutakoak lege, auzo kofradien egiturearen oinarria izan ziran. Auzoko ermiten kasu batzuk honako honeek dira: Diman, Olazabalgo San Roke, Bargondiako Santa Apolonia, Obako San Juan eta San Antolin, Bikarregiko Santa Ageda...; Zeanurin, Asterriako San Andres, Urkistako San Migel Uribeko kofradian, Alzuagako San Juan, Ipiñaburuko Santa Ageda...

5) Antxinatik egon ziran mendi komunak. Gizaldietan zehar, XIX. eta XX. mendeak arte, herri-



“Volar” pelikularen emanaldia eta ondoren genero indarkeria pairatu duen emakume testigantza eta solasaldia.

Arteako Kultur Etxean (Areto nagusian)
Azaroak 19, arrastiko 19:00tan

ARTEAKO ANDRA TALDEA



ARTEAKO UDALA





DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

mendiak elizateen edo auzo kofradien jaubetzako ondasun higiezinak ziran, eta, izenak berak dinoan moduan, erabilera eta aprobetxamentu komunekoak edo publikokoak. Elizateak "komuneko" mendiak edo ejidoak ebezan, eta kofradiak "kofradi-basoak". Bietan basoetako egurraren ustiapena eta aziendearentzako larreen eta belardiena sano garrantzitsuak ziran herritarren eguneroko mantenuan.

Auzo kofradien kasuan, bakotzak bere jurisdikzio eremuan eukan bere lurraldea, mugari handiakaz mugatutako mendiak hartzean ebazana, eta handik, ezkurak, gaztainak, zugatzen hostoak, irak, onddoak eta abarrek, eta karobietatik karea edo burdinoletarako landare ikatza lortzeako landuten ebazanek. Era berean, hostozabaleko espezieak (haretzak, pagoak, gaztaina-arbolak...) landatzen ebezan. Lan hau "landare-imintze" deitzean zan eta kodfradietako kideak auzolanean egiten eben.

Kofradiak beren-beregi horretarako zan kargu bat eukiten eben, ondasun hori kudeatutako: alkate montazgero edo basazaina.

Kofradi-basoak etxeetatik udal ejidoak edo komunalak baino hurrago egozan mendiak ziran. Azken honeek, garaiera handiagoko eremuetan egoten ziran, mendi-saroiaren edo artzain-saroiaren ondoan.

Auzolana. Auzo kofradien bereizgarrietako bat da auzolana; adibidez, baselizaren edo bere jaubetzako beste ondasun batzuen egoera ona zaintzeako zereginetan dago: teilatuak konpontzea, zelaiak garbitzea, bolatokiak, mendiak... Beste lan bat, beste sasoi baten funtsezkoa zana kofradien bizitzan, eta gaur egun egiten ez dana, kofradi-bideak zaintzea zan. Lan horrerik "bidegintze" deritxo.

Maiordomoa eta Basazaina. Urtean zehar data seinalau bat ermitearen titularra dan santuari eskainitako jaieguna izaten zan, eta da. Ekitaldi hori antolatzeaz kofradiako beste kargu garrantzitsu bat arduratzen zan, maiordomoa. Bere agintaldian jaieguna antolatu eta tenplua zaindu eta garbitzeaz arduratzen da. Ikusten dogunez, kofradiak euren existentzian funtsezkoak diran ondasun biren inguruan an-

tolatzen dira: tenplua edo baselizatea, eta herri-mendiak; eta kargu bi dagoz: maiordomoa eta basazaina edo alkate montazgeroa. Era berean, persona hori dagoan kofradietan, erakunde horretako presidentea izango da karguan dagoan bitartean, eta gainera, bera arduratuko da ohiko batzarren, edo beharrezkoa bada, ez ohiko batzarren deialdiak egiteaz, baita kofradiaren liburuak eukiteaz be (kontu-liburua, partaide diran kideen zerrendea, ordenantzak, estatutuak edo erregelamentua...).

Sutegiak. XVI. mendetik finkatuta egozan auzo kofradiak, gitxieneko etxe partaide kopuru bat izan behar ebela: 14, hain zuzen. Xehetasun gisa, esan behar da Asterriako kofradian (Zeanuri) Amalauetxeta izeneko etxe bat egon zala, hamalau etxeren alkartzeari erreferentzia egiten deusana. Kopuru hori abiapuntutzat hartzean da euskal landa komunitateen antolaketan ekonomiko-administratiboan. Gehienekoa hogeta hamarretik gorakoa da, Ipiñaburu eta Olazabal kofradien kasuan, barbarako. Etxe bakotzak su/etxe bat dauka,

eta kofradian daukan eskubideari "sutegia" deitzean jako. Garaiak aurrera egin ahala, etxe batzuk etxebizitza bitan banandu ziran euren suakaz, eta sutegiak erdi sutegitan banandu ziran, hauxe zan ordezkari izateko gitxieneko kopurua eta botoa emoteko eskubidea kofradiaren bileretan; beste etxe batzuek, barriz, sutegiak banandu beharrean, sutegi bi bildu ebezan etxe bakar baten. Horren guztiaren ondorioz, XIX. mendearen hasikeratik aldatu egin zan, batez be, sutegietako partaideen kopurua. Sasoi hartan, presino demografikoaren ondorioz, etxe barriak eregi ziran herri-lurretan; holan, Diman, 1845ean, Elgabide izeneko baserria eregi zan, eta haren jaubeak, Manuel de Bernaolak, 1846an Indusiko kofradiari jagokun sutegien erregistroan inskribidutako eskatu eban, "Bere eskubide eta betebeharrak guztiakaz" (Ruper Lekueren obratik hartutako erreferentzia). Holan, bada, baserri barriez eta herrietako plazetan eregitako etxe barriez osotutako sutegi barriak sartu ziran antxinako sutegietan, eta horren ondorioz, auzo kofradiak pisu handiagoa izan eben

15/2015 Legearen

16. artikulua, auzo

kofradiak soziedade

zibil bihurtuteko

aukerea emoten dau

ILGORAN
arratiako jabekuntza eskola

94 631 17 17 / 688 627 393

<http://www.arratia.net/eu-ES/Zerbitzuak/Berdintasuna>

berdintasuna2.arratia@bizkaia.org

Arratiko Udaletxeetan
Arratiako Udalen Mankomunitatean
Elexalde, 49 (Igorre)



herrietako eguneroko bizitzan. Izan be, udalak, XVIII. mendearen amaieran, gastu handiagotara aurre egiteko arazo ekonomiko larriak izaten hasi ziranean, euren ondasunen zati bat saltzera behartuta ikusi ziran, esate baterako, mendi komunalak. Zeanurin mendi horreek auzo kofradietara pasetako saiakerak egin ziran arren, azkenean ez zan holan izan. Urte hareetan, 1782an hain zuzen, dokumentu historiko bat jaso genduan, inoz argitaratu bakoa, eta M. Rotaèche jaunaren adeitasunari esker eskuratu ahal izan dogu. Dokumentu horretan, anaitasun baten sorrera aitatzen da, etxeetako ohiko suteak eragindako galerai aurre egiteko. Ekimen hori aurrekaria izan zan bere eremuan, eta Ipiñaburuko kofradiako sutegietako bizilagunak egin eben. Gero, baserri eta etxeetako jaube gehienak be gehitu ziran.

Es kubideak eta betebeharrak. Sutegiak beti egon dira eta dagoz jaubetza bateri lotuta, baina jaubetza horrek (etxea/etxe multzo edo kofradiatik erositako mendia/kofradi-basoa) sutegi-eskubidea izan behar dau erantsita eskrituran. Heredatzeko unean, etxea/baserria edo "kofradi-basoa" eta sutegia lotuta dagoz. Jaubetza persona bakarrekoa da, eta jaubetza horren jaubea da kofradian karguak euki daitezana. Auzoan bizi diran errentariak ez daukie eskubiderik kofradian. Betebehar gisa ezartzen da su-

tegiaren titularrak txandaka jagokon kargua hartzea batzurrean, izentatzen daben urtean, etxe zerrendearen eta kofradian sutegi-eskubidea daukien kideen arabera.

XX. mendea. Aro garaikidean, batez be Bizkaiko industrializazioaren lehen momentuetatik, horrek dakarzan gizarte aldaketak (lehen landa exodoa, obrerizazioa, gero eta indibidualismo handiagotara...) landa eremuetara heltzean dira. Jaube txikiak, baserrietako biztanleak, modernizazioan sartu dan mundu baten, tradizio dira. Baserriak eregitari ixten jako, abandonetan be hasten dira. Herririkako bizimodua eta etorkizun ekonomikoa krisian sartzean dira uriguneen bultzada indartsuaren aurrean. Eraldaketa giro horretan, komunitate alkatet txikiak, auzo kofradiak lege, aldaketak ditue: XX. mendeko 30eko hamarkadatik aurrera eta hurrengo hamarkadetan, herri-mendien enkanteak egiten hasi ziran. Ondasun horreen banaketak antzeko loteetan egiten dira, hedadureari eta kopuruari jago kienez, jaube bako txak daukan sutegi-kopuruaren arabera. Mendi komunalak sutegien jaubeen eskuetara paseteak nabarmen murriztuta ixten dau kofradien ondarea. Eskualdaketa horrek ez dau zelanbaiteko polemikarik izango. Kofradien baliabideak eta etorkizuna oindino kaltetuago geratuko dira hirurogeiko eta hirurogeta hamarrekoko hamarkadetatik

aurrera. Landa eremuko biztanleriaren zahartzeak, esaterako, ez dau erreleboan lagunduten auzo kofradiak moduko ehun urteko erakundeak indarrean mantenduteko. Horri, gainera, lege zailtasunak gehitu behar jakoz komunitatearen erabilerako ondasunak eskrituratzeko orduan, neurri baten landa guneen errealdetatik urruntzearen ondorioz.

XXI. mendea: lege esparru baten bila. Egoera delikatu horregaz heldu ginan XXI. mendera, eta puntu horretan kofradia batzuk euren egoera juridiko-administratiboa erregulartzetan saiatzen dira; hau da, euren existentzia propioa aitortzen ez dauan lege linbo batetik ateratzen. Lana gatxa da, baina ezetuten dogu kofradiaren bat, esaterako, Zeanuriko Asterria, ondasunak eskriturtea lortu dauana. 2015. urtean, ordura arte indarrean egoan legeak ekarren zailtasunaren jakitun, Euskadiko notario eta abogadu talde batek, horreen artean Bizkaia jago kienez, Juan Antonio Gomeza Villak, Bilboko notarioak, eta Nazario Oleaga Páramok, Bilbon bulegoa daukan abogaduak, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 25eko 15/2015 Legea onartzea lortu eben. Lege esparru barri horrek, 16. artikuluan, auzo kofradiak soziedade zibil bihurtuteko aukera emoten dau, eta, soziedade zibil barriko bazkideak onartuten badabe, sutegiak edo kofradiako beste ondasun batzuk saldu ahal

izango dira. Gainera, Jaubetza Erregistroan erakunde propio gisa agertzea lortu gura da. Hori guztiori, etorkizuneko belaunaldientzat gure aurrekoen ondare dan ondasuna babesteko; balio historiko eta kultural eta handikoa, nahiz eta balio ekonomiko eta sozial txikiagokoa izan. Amaitzeko, Arratiako eta inguruetatiko auzo kofradietako kideak animau gura doguz auzoetako ondasun

komunitarioak idatzi eta erregistroan dagiezan.

* **Oharra:** lau urte honeetan, lege barria indarrean dala, eta abogaduak eta notarioak hasteko ebatzia hartu ondoren, Euskadiren barruan esperientzia pilotu gisa Bizkaian, Zeanurin hain zuzen, eskrituratu dira lehenengotik Alzustako kofradiaren ondasunak, eta ointsu, Otzerinmendiko kofradiarenak.



San Justoko harestia eta iturria.



GALARZA

Funeraria - Ehorztetxea

funerariagalarza.com

egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz

- Beilatokia
- Errausketa-labea
- Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta
- Gestino administratiboa
- Eskelak, doluminak eta esker onak online

- **Bulegoa**
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao
t. 944 570 395 (24 ordu)
f. 944 575 043
e. info@funerariagalarza.com
- **Dimako tanatorioa eta errausketa-labea**
Ziarrusta industrialdea, 39
- **Galdakaoko tanatorioa**
Zabalea, 24



ZURE ZERBITZURA

Avia guztira 192 gasolindegi
Avia Adenor 35 gasolindegi

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

**Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua**

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan



begitu

arrantia ubide zeberio

2019AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! URTEA AMAITU ARTE BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2019an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarreak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egitegaitik Areatzakoko Bainuetxean lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarrea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuota: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.



txikitasunetik handi

Landa eta itsasertz garapena



EUSKO JAURLAKITZA GOBIERNO VASCO

KIROL ASTEA

Skate tailerra egongo da Lemoako Kirol Astean

Domekako Lemoatx Trail Lasterketeagaz hasi da Lemoako Kirol Astea eta datorren domekara arte, zemendiak 24, kirolaren gaineko hainbat jarduera antolatu ditue Udalak eta zenbait kirolen inguruko herriko alkartek. Mendi ibilaldien gaineko proiektzioak, txirrindularitzeari buruzko mahai-ingurua, pelotea, bertsoak, skate tailerra eta duatloi txikia dira antolatutako jarduerak.

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail-egaz hasi da astea. Lasterketa luzeak 24 kilometro izan ebazan eta laburrak 16. Ibilbide bera egitea egoan martxa luzea eta martxa laburrean. Kepa Vallejo eta Oihana Azkorbebeitia izan ziran irabazleak lasterketa luzean eta Oier Ariznabarreta eta Garazi Irazabal laburrean.

Kirol asteko hurrengo ekintza be mendiari lotuta dago. Gan-

zabal Mendi Taldeko Bazkideen proiektzioen artean, Arratiako Marimendien *Eslobakia zatitxo bat* aukeratu dabe Kirol asterako. Marimendiak, 40 urtetik gorako andra mendizaleak dira, goi mendiak egiten dituenak. Eguaztenean izango da, hilaren 20an, 20:00etan, jubiladuen lokaleko gaineko aretoan.

Barikurako, Lemoako Txirrindulari Elkarteak mahai-ingurua antolatu dau. Bertan, Joseba Beloki, David Lopez eta David Etxebarria

txirrindulari profesional ohiak, Kepa Zelaia, kirol medikua, Aina- ra Hernando kirol kazetaria eta Julen Agirre txirrindularitzarako erroa diseinatzailea egongo dira. 19:00etan izango da kiroldegiko frontoian. Egun berean, 17:00etan, Lemoako Esku Pilota taldeak antolatutako umeen pelota partiduak ikusteko aukerea egongo da eta 21:00etan, bertso pelotea. Mikel Aurrekoetxea eta Imanol Arrese, eta Ander Elezkano eta Endika Garcia izango dira pelotariak; bertsolariak barriz, Illart Gumuzio eta Igor Menika.

Helburua kirola sustatzea da eta persona bakoitza topau dagiala bere gustuko kirola; horregaitik, hain zabalduak ez dagozan kirolak probetako aukerea izaten da Kirol Astean. Hori dala-eta, zapatuan, 11:30etik 14:00etara, Udalak skate tailerra eta erakustaldia antolatu dau skate parkean. Horretarako Gure Txoko, Zorrozaurreko (Bilbo) skate eskolakoak izango dira Lemoan. Eskolakoak ipiniko dabe materiala eta probetan animetan diran guztiak hartu leikie parte.

Asteari amaierara emoteko, hurrengo egunerako duatloi txikia antolatu dabe eskolan, 11:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxe Guraso Elkarteak.

Aste osoan zehar ekintzak egingo dira eskoletan.

MOTORRAK

Zeanuriko Enduro Taldeak hogeta hamargarren topaketea antolatu dau**Erredakzioa**

Hogeta hamargarren urtekera Arratiatik antolatu dabe eta zemendiaren 24an, Zeanurin, ehun motorzale inguru batzea espero dabe antolatzaileak. Igaz 64 motorzale batu ziran, errekorra ezarri, baina aurten, "Gernikatik be etorten badira, igual ehun" izango dirala dino Pedro Sagarna

antolatzaileak.

Zeanuriko Arregia auzoan hasiko da ibilbidea 09:30ean. Hainbat auzunetan ibili ostean, Abadiñoko Basaguren jatxetxean armozau eta Zeanurin amaituko dabe errekorridua, "parkeak ikutu barik". Topaketa honetan edade guztietako motorzaleak batzean dira eta motorzale ezagunak be hartzean dabe parte.



Igazko urtekerako irudia.

ALKARRIZKETEAK

Esti Garcia, futboletik mendi duatloiak egitera pasau dan kirolaria

Lemoako Esti Garcia Mendiguren Zeanuriko Mendi Duatloiko podiumera igo zan, helmugara sartu zan hirugarren andrazkoa izan zan eta. Futbolean orkatilea apurtu eta bizikletea hartu eban: lehenengotik kaminoan, gero mendian. Oin dala bost urte mendi duatloiak egiten hasi zan.

Erredakzioa

Zeanuriko Mendi Duatloiko podiumera igo zinan. Zelan joan zan lasterketea? Zeintzuk izan ziran zure sensazioak?

Eguraldi ona egiten ebalako joan nintzan. Aurretik entrenetan ibili nintzan, baina belaua ez neukan ondo. Horregaitik suabe atera nintzan eta galapan, nahiko atzean ibili nintzan, azkena ez esatearren.

Baina gero bizikletan gora egiten hasi nintzan. Aurreko neska

ikusten neban eta aurreratzera joan nintzan. Aldapan gora zatia ateraten eustan eta gero, behe- rantza, errekupeetan neban. Eta orduan barriro gorantza eta iges egiten eban eta behe- rantza barriro harrapau egiten neban. Gero, bigarren joiana ikusi genduan. Eta orduan, pasau genduan eta bardin, aldapearen arabera.

Baina azkenengo zatia jeitsiera handia zan eta azkenengo sektorea korrika izan arren, tarte nahiko atera neban hirugarren egiteko.

Noz hasi zinan duatloiak egiten?

Oin dala bost bat urte. Ni futbolean nenbilen eta orkatilea apurtu neban. Orduan ezin neban ez futbolean ez galapan egin. Medikuek esan eustan aukera bakarra gimnasia joatea zala. Eta gimnasia ez jatan ezer gustetan. Gizona txirrindularia da eta orduan, esan neutsan bizikleta bat ixteko. Itxi eustan kaminoko bizikleta bat eta hasi nintzan urtetan. Orduan Usansolon bizi nintzan eta Arteraino, Zeanuriraino, Dimara... joaten nintzan. Gustau egin jatan.

Holan, egun baten pentsau neban Lagos de Covadonga martxa zikloturistan parte hartu gura nebala. 111 kilometro dira eta azkenengo zatian Covadongara igo behar da. Helburu hori ipini neutsan neure buruari ateraten jarraituteko. Holan hasi nintzan.

Eta horren ostean mendiko lasterketak egiten hasi nintzan. Georago lehiatzen be hasi nintzan. **Orduan zu txirrindularitzatik zatoz.**

Bai. Mendiko bizikletako lehiaketetan ibiltzen naz. Nebea eta gizonagaz joaten nintzan entrenetan eta, lehenengo aldi- an, apuntau beharrean lehiatzen zan karre- ra baten, herri lasterketa baten apuntau nintzan. Sano forma

onean nengoanez, erraz irabazi neban. Mallabian izan zan oin dala bost urte. Orduan duatloiak egiten hasi nintzan. Lehenengo urtea egin eta haurdu geratu nintzan. Umea urrian jaio zan eta hurrengo urtean duatloietara bueltau nintzan. Udan errazago izaten da entrenetako eta duatloiak urri lehenengoan hasten dira zemendira arte. Gero barriro geratu nintzan haurdu. Bigarren umea aurreko abuztuan jaio zan eta urrian Zeanuriko Mendi Duatloia egin neban.

Zeintzuk izango dira hurrengoak?

Usansolokoa egitekoa nintzan, baina eguraldi honegaz ez noa.

Ni udakoa naz, kar, kar. Hurrengo Aramaion da, baina ez dakit parte hartuko dodan: ume bigaz, asko mobidu behar izaten da eta. Gainera, nekatuta nago. Uda osoan entrenetan ibili naz eta mendiko martxak be egin dodaz.

Zelan entrenetan zara?

Neure kabuz. Ez daukat entrena- tzailerik. Lehen bai, lehiatzen nintzean hartu neban entrenatzaile bat eta harek esaten eustan non entrenau, noz entranau eta dana. Oin urtetan naz disfrutatzen ahal dodanean, amaren laguntzeagaz, ze ha geratzen da umeakaz. Beharretik urtendakoan, ondo etorten jatana egiten dot: egun baten galapan, beste baten bizikletan...



Esti Garcia Zeanuriko Duatloiko podiumeko hirugarren kajoian.

MENDIA



Mendi Jardunaldiak Zeberion

Erredakzioa

Aurten be, Zeberioko Austari Mendi Taldeak antolatuten dituan Mendi Jardunaldiak mendi ibilaldia eta bazkariagaz hasi dira, zemendiaren 17an, domekan. Hurrengo egunean, ikus-entzunezkoak ikusi eta berbaldiak entzuteko aukerea egongo da 19:30ean, udaletxeko aretoan. Astelehenean, hilak 18, *Aralar, mundua leku den lurra*, Garazi Auzmendik, Iban Toledok, Aloña Jauregik eta Ion Fontenlak zuzendutako 85 minutuko dokumentala ikusteko aukerea egongo da eta zuzendaritako bi egongo dira bertan aurkezpena egiten. On Produzioak-en film ho-

nek hainbat sari jaso ditu eta 2018ko Mendi Film Festivalen be egon zan.

Martitzenean, hilak 19, Juanjo San Sebastianek bere esperientziak mendian zein bizitzan kontauko ditu *El viaje* izenpeko berbaldian. Bilboko mendizalea, 1980 eta 1990 hamarkadetan egin zan ezaguna.

Eguenean, hilak 21, goi mendietan gidari izateko titulazinoa euki eban lehenengo andrea Sonia Casasen *Alpinismo en femenino* ikus-entzunezkoa ikusi eta Casasen azalpenak entzun ahal izango dira.

Amaitzeko, hilaren 22an, Zigor Egia alpinista eta segurtasun adituaren berbaldia eta *Alpinista batek utzitako ondarea* filma egongo dira. Pelikulea, Ramon Gonzalez Sojo, Arrigorriagako mendizalea zanari omenalditoxa da. Zigor Egia, Arrigorriagako Club Alpino Padurako kideak eta Ziortza San Pedrok, Euskal Museoko teknikariak egin dabe bideoa. Egia egongo da bideoa aurkezten.

MENDI MARTXEA

San Kristobaleko mendi martxea hilaren 30ean izango da

Erredakzioa

Igorreko San Kristobaleko XVII. Mendi martxea zemendiaren 30erako antolatu dau Intxaurbizkar Kultur Elkarteak. Aurreko urteetan legez, ibilbide bi dagoz aukeran; luzeak 20,5 kilometro ditu eta laburrak 17 kilometro. Urtekera plazatik izango da 08:30ean eta martxea amaitutakoan partaideentzat oparia eta kopaua egongo da.

Ohitura dan legez, mendi martxearan ostein, babajana egongo da izena emon daben lagunentzat. Mendi martxan edo mendi martxan eta bazkarian parte hartzeako izena alde aurretik emon behar da, hilaren 28a baino lehen dirua Sabadell Guipuzcoanoko kontu zenbaki honetan sartuta: ES27 0081 4310 05 0006033619. Prezioa zortzi euro dira martxea bakarrik egin gura dabenentzat eta

18 euro martxan eta bazkarian izena emon dabenentzat.



MENDIA

Elur Goritan BBK Mendi Film jaialdiko sail ofizialean izango da

Dokumental honetan, eskiatzaile talde batek, tartean

Jurek Ziemkiewicz zeanuriztarrek, Kamchatkako

sumendietan eskietan pasautako egunak jasoten dira.

Bideolan Proyectos Audiovisuales Zarauzko enpresek

egin dau 14 minutuko *Elur Goritan* filma.

Erredakzioa

Abenduaren 14an, 11:30ean, estrenauko da BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdian.

Dokumentala egiteko, proiektu bi baten batu ziran. Izan be, alde batetik, zazpi lagun eskiatzailek Kamchatkara eskietan joateko asmoa eukien, eta bestetik, Bideolan produktzio etxek BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaierako film bat egin gura eban. "Kasualitatea izan zan, guk Kamchatkara joateko plana egin-

da geunkan eta geugaz etorri zan produktzio-etxekoa" azaldu deusto BEGURI Ziemkiewiczek.

Film honetako protagonistak, Xabier Etxabe, Eneko Aurrekoetxea, Jon Apeztegia eta Pello Amantegi Zornotzakoak, Igor Bernas Durangokoa, Aratz Otaegi Idiazabalgoa eta Jurek Ziemkiewicz dira. Eurakaz, Iker Larrañaga Bideolanekoa egon zan, aurtengo udabarrian, hoguei bat egunez, munduko leku apartau haretan filma grabetan. Filma jaialdiko sail ofizialean lehiatuko da.

Kamchatka

Mendiko zinemaldietan ohikoa da igoteko gatak diran mendi ikusgarrietarako espedizioak agertzea. Ez da *Elur Goritan* filmaren kasua. Eskiatzaileak leku oso ikusgarrietan eskietan agertzen dira, baina zeanuriztarraren esanetan, ez dauka zailtasun tekniko handirik.

Kamchatka Errusian dago, Siberiako eskualde bat da, lurralde oso isolatua. Han sumendi aktibo asko dagoz eta krater barruan eta kanpoan, fumarola artean, eskietan ibili zan lagun taldea.



PELOTEA

Bizkaiko Txapelketako finalerako sailkatu da Ainhoa Romero eta aukerak ditu Amaia Alday

Erredakzioa

Bizkaiko Binakako Txapelketa jokatzan dabiz Ainhoa Romero pelotari lemoztarra eta Amaia Alday dimoztarra. Iera Agirre eta Ainhoa Romerok irabazi eben zemendiaren 16ko partidua eta finalerako sailkatu dira daborduko. Amaia Alday eta Nora Mendizabalek barriz, galdu egin eben bigarren jardunaldi horretan. Hirugarren jardunaldiko partidua Arrate Bergara eta Olatz Ruiz de Larramendiren


kontra jokatuko dabe.

Bizkaiko II. Txapelketa honetan 8 pelotarik hartzean dabe parte, lau bikote beraz. Finala hilaren

30ean jokatuko da eta ETBn ikusi ahal izango da.

Emakume Master Cup

Pelota mistoko final laurdenak jokatuko ditu Amaia Alday Mirian Arrillagaren kontra zemendiaren 24an, 17:00etan Zamudion. Ainhoa Romero lemoztarrak 16 urtez azpiko finalerako partidua jokatuko dau pelota goxugaz bezperan Mañarian Leire Gleanoren kontra.



Amaia Alday.

U2T UBITE

ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel: 94 631 60 65 - 615 75 87 92

e-mail: ubitemat@ubitesl.com

Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A

48140 IGORRE (Bizkaia)

ERA GUZTIETAKO MATERIALAK ERAIKUNTZARAKO

KARE BIZIA

ESTELEHENETIK BARRIKUR

07:45-12:45

14:00-18:30

ZAPATUETAN

08:30-12:30

FAIR SATURDAY

Poesia topagunea Igorreko Udal Liburutegian

Zehemendiaren 29an, 20:00etan, Olerki Topagunea Udal Liburutegian izenpean, hainbat rapsodak euren eta poeta ezagunen poemak irakurriko ditue, flautearen musikeagaz lagunduta, "giro magikoa" sortuteko.

Erredakzioa

Ekitaldi honegaz, Igorreko Udal Liburutegiak, Fair Saturday, kulturaren aldeko ekimenagaz bat egiten dau.

Pablo Cabañasek, Ana Jue-

zek, Maria Jose Dominguezek eta Eduardo L. Diazek "Zuhaitz", irakurriko ditue euren poemak eta Angela Figuera, Idoia Carramiñana, Blas de Otero, Joseba Sarrionandia, Igor Estankona, Gloria Fuertes, Blanca Sarasua, JM



Gabriel y Galanen poemak. Flautea jotzen Mikel Iglesias izango da.

Kultura konsumiduteko eskubidea

Kultura konsumidutea danon eskubidea dala gogora arazo gura dabe liburutegitik. "Ekimen honen

helburua, arlo desbardinetao kultura zabaldu eta konsumidutea da, eta kultura erabiliz mundua hobetu, guztion helburua dalako mundu hobean bizitea, baita guztion eskubidea be. Kultura, bera da, mundua aldatuten lagunduko deuskuna. Norberaren

eta besteen kultura eta ohiturak errespetau, errespetau arazo eta zabalduz" azaldu deutso BEGITURI Irune Elexpe Igorreko Liburutegiko liburuzainak.

Mundua hobetuteko erremintea da kultura. "Esku artean daukagun altxor prezia duena dalako; kultura, mundua bezain zabala dalako; kulturak ez daukalako mugarik. Muga bakarra intolerantzia da. Ez dau bereizten kolorerik, hizkuntzarik, sexu, sexualidade edo beste edozein aukerarik. Kulturak, errespetuz erabili ezkeru, dana errespetau arazo egiten daualako" gehitu dau Elexpek. Bere ustez, mundua hobetuteko, jaso dogun kultura kontuan hartuta, abangoardiara jo behar da, eta kulturaren "tendentzia barriak aurkitu, erabili eta erakutsi" behar dira.

MUSIKEA

Musikearen zaindariaren omenez kontzertu ugari

Zehemendiaren 22an ospatuten da Zezili Deuna, musikearen zaindariaren eguna eta horren harira kontzertu eta emonaldi ugari egongo dira egunean bertan eta aurreko eta osteko egunetan.

Erredakzioa

Areatzako Bandak, abesbatzak, Musika Eskolako ikasleak eta beste hainbat musikariek eskainiko ditue estilo askotako entzunaldiak.

Arratiako Musika Eskolako ikasleak izango dira gehien ospatuko dabenak eguna. Izan be, euren jaialdia 21ean izateaz gainera, Areatzako Banda eta Luis Iruarizaga Abesbatzaren emonaldietan be izango dira, hilaren 22 eta 23an, hurrengo hurrengo.

Zezili Deunaren bezperan, eguraldiak lagundu ezkeru, kalejireia egingo dabe Arratiako

Musika Eskolako ikasleak Arteatik 18:00etan. Txarra egin ezkeru, eleizan egingo dabe emonaldia.

Hurrengo egunean, zehemendiak 22, 20:00etan, Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean, Areatzako Bandak kontzertua eskainiko dau eleizan. Musikariakaz batera, Musika Eskolako txistu, flauta, klarinete, saxo eta pianoko ikasleak joko dabe.

Hilaren 23an barriz, 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean musika koralagaz da hitzordua. Luis Iruarizaga Abesbatza, Begoñako Garaizarko Matorriak Abesbatza, Musika Eskolako Lemoa eta

Igorreko Tailer eta Hizkuntza musikaleko ikasleak eta ludotekako umeak izango dira han. Igorreko abesbatzakoak estilo desbardinetao kantak kantauko ditue; Elberdinen Kyrie eta Ken Zazpiren Noizbait, barbarako.

Beste estilo batzuk

Tabernetan be egongo dira kontzertuak. Artean, Azaro Musikalean, hilaren 22an Izar Zuri tabernan, 20:30ean, Rusted gitarrajolea egongo da eta hilaren 29an, Ustrukue tabernan ordu berean Los Cosméticos punk rock taldeak joko dau.



ANTZERKIA

Konplizeak taldeak Itzuliko naiz lana estrenauko dau Igorren

Erredakzioa

Zehemendiaren 22an, 19:30ean Igorreko Lasarte Aretan izango da estrenaldia. *Itzuliko naiz* Konplizeak taldeko kideak sortutako lana da. Igorreko taldeak, sortu zanetik ia urtero estrenau egiten dau lan barriren bat, arrakasta handiz.

Itzuliko naiz lanak Areatzako bainuetxean topo egiten daben bost andraren arteko solasaldia dakar. Jatorri desbardinetao andrak dira; Bolivia, Kenia, Tailandia eta Euskal Herriko andra bi, bizimodu eta bizitzaren ikuspegi diferenteak dituenak.

Lana sortzea eta taularatzeaz gainera, taldeak berak egiten ditu jantziak eta atrezzoak.

Konplizeak

Taldea 2014an sortu zan Igorreko Emakumeen arteko Topaketa Interkulturaletatik; izena, hainbat lan sortu eta antzestu ostean ipini eutsien. Antzezlan baten Uxue Alberdiren *Konplize ditut eta bertsoak kantetan ebezan eta hortik hartu eben.*

Marisol Calzada, Marta Iza, Maite Intxaurbe, Soraya Lizundia, Maria Rezagorri eta Bego Uriarte dira taldekideak.



Euskal Herria Lotea 30 €

6 produktu:

1. Arabako Errioxako ardo beltza
2. Bizkaiko Sokonusko turroia
3. Gipuzkoako solomo ondua
4. Iparraldeko gazta zatia
5. Iparraldeko pateia
6. Nafarroako cherry piperrak, gazta beteak

Bizkaia Lotea 50 €

11 produktu:

1. Bizkaiko sagardoa (Urbealdeia)
2. Txakolina (Arratia)
3. Gurinezko pastak (Enkarterriak)
4. Intxaur-saltsa turroia (Bilboaldeia)
5. Ahabi txokolatea (Bilboaldeia)
6. Boletus Edulis (Txorierrria)
7. Urdaiatzpiko Iberikoa (Bilboaldeia)
8. Txorizo Iberikoa (Bilboaldeia)
9. Gazta 250-275gr (Arratia)
10. Hegaluzea (Busturialdea)
11. Sagar-gozokia (Lea-Artibai)

Eko Lotea 28 €

8 produktu ekologiko:

1. Arabako Errioxako ardo beltza
2. Kafea
3. Kuskusa
4. Shiitake Patea
5. Kakao eta hur krema
6. Marmelada
7. Txokolatzeko galletak
8. Sagar snack-a

Gabonetan eroan Euskal Herria zure mahaira!

Hamabost lote & otzara mola balno gehiago aukeran!

Baten bati oparitu nahi diozu? Ba guk oparitzeko bilduko ditugu! Eta, nahi izanez gero, nahi dazun lekura bidaliko dugu!

Zazpi Hartzetara & Euskal Herriko Produktuak
Agirre Lehendakaria 11
94 631 92 43 | zazpihartzetara.arratia@gmail.com

ANTZERKIA

Umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan

Teatro Paraiso konpainiaren *Nomadak* atzezlanaren eskainiko dabe zehazkiaren 30ean, 17:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan.



Erredakzioa

Hiru eta bost urte bitarteko umei dago zuzenduta, eta umeak espazio eta denporeagaz zelan erlazinatzen diran galdetu eutseen euren buruak, eta matematika, geometria eta arkitekturearen oinarriak egin eben topo. Proiektuari Maushaus arkitektura lantegia batu jakon eta istorioa eregiten hasi ziran Rosa A. Garcia eta Koldo Uriarte egileak.

Charlotte Fallon-en zuzendaritzapean, Rosa A. Garcia eta Ainara Unanue izango dira aktore lanetan.

Nomadak antzezlanaren, Espai-

niako Antzerki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdi Sareak gomendatutako ikuskizuna da eta Feten Jantzi onenari saria jaso eban 2015ean.

Sinopsia

Munduan zehar leku batetik bestera ibiltzen dira andra ibiltari bi. Egun baten, sorpresaz betetako leku bitxi, desordenatu eta kaotiko batera heltzen dira eta han zainduko daben arrautza erraldoi bat topaiko dabe. Eszenalekuak, naturaltasunez, arkitektura, geometria eta matematika sortzen ditu. Bitartean, arrautzearen barruko bizitzak taupadaka jarraituten dau.

AZARO MUSIKALA

Kontzertuak eta jaialdiak Azaro Musikalaren barruan



Erredakzioa

Arteko Azaro Musikalaren bigarren hamabostaldian, Zezili Deuna musikearen zaindariaren egunak hartzen dau protagonismo berezia. Holan Arratiako Musika Eskolako ikasleak eta Arteko eskolako umeak musika ospatuko dabe jaialdi bitan.

Izan be, hilaren 21ean, Musika Eskolako ikasleak 18:00etan batuko dira Kultur Etxeko Aretoan kalejiran urteteko prest. Kultur Etxetik, plazarantza abiatuko dira eta handik Batzokira kaminotik. Batzokiko parkinean, abesti batzuk kantatu eta handik barru Kultur Etxera txokolata jateko.

Hurrengo egunean, barikuan eskolan izango da jaialdia 15:00etan. Eskola-umeak taldeka, kantatu, musika tresnak jo edo koreografiak eginaz disfrutatu eta disfrutatu arazoko dabe musikeagaz. Egun berean, iluntzeko 20:30ean, Rusted egongo da Izar Zuri tabernan.

Azaro Musikala beste kontzertu batez garratuko da. Hurrengo barikuan, hilak 29, Los Cosméticos taldearen kontzertua egongo dan Ustrukue tabernan 20:30ean.

MUSIKEA

Taldeen lehiaketa egongo da VI. Dimetalfest-en

Erredakzioa

Dimetaleroak Kultur Elkartek, aurten egindako bosgarren metal musikearen jaialdiaren balorazioa egin eta datorren urteko edizinoako datak emon dabez jakitera. Aurtengo moduan, 2020an be, urri lehenengoaren atzen astegoienean izango da Dimetalfest: 25 eta 26an, hain zuzen be.

Koba eszenalekuan taldeen lehiaketa bat egin gura dabe antolatzaileak. "Norgehiagoka, Koba eszenalekuan egingo litzateke, bariku eta zapatuan. Aurkeztutako talde guztien artean, metal musika eta honen estilo ugariak adituak diran epaimahaikideak, 10-12 onenak aukeratu ostean, boto bitartez, ikusleak ebartziko lekie finalerdi eta finaleko irabazleak zeintzuk diran" azaldu dabe prentsa-ohar baten bidez.

Lehiaketaz gainera, Koba eszenalekuan, beste ekintza batzuk be egingo dira, mahai-ingurua, berbarako; baina leku horrek daukazan espazio mugak kontuan hartuko dabez antolatzaileak datorren urteko jaialdiari begira.



DUNBA

Hondarribia herri ikusgarria

Dimako ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Urri bigarrenaren zazpian gure eskolako hiru, lau, bost eta seigarren mailako ikasle eta irakasleak Hondarribiako Elkano aterpetxera joan ginan eta bertan hiru egun zoragarri pasau genduzan.

Hondarribia Gipuzkoako ipar ekialdean kokatuta dagoan herri bat da, bertan 16.000 persona inguru bizi dira. Zerbitzuen sektorean oinarrituta dago Hondarribiako ekonomia gehien bat, baina arrantzak eta familia nekazaritzak be badaukie garrantzia.

Bizkaiko barrukaldetik Gipuzkoako kostaldera joan ginan,

Dimatik hara 110 kilometro inguru dagoz.

Hiru egunetan zehar hainbat ekintza egin genduzan.

Lehenengo egunean Jaizkibel mendira igon ginan, bertako landaretza aztertzer eta bertatik ikusten diran bista ederrez gozatzera. Hondarribiaren parean Bidasoa ibaia itsasoratzen da eta ibai honen beste aldean Hendaia eta Irun ikusten dira. Hiru herri honek Txingudiko badia ertze-ko hiru udalerriak dira. Urrunago, ondo fijau ezkerre eta lainorik ez badago Donibane Lohizune be ikusi daiteke.

Esaten dabe Euskal Herrian bi olatu famadu dagozala: Belarra



Hondarribiako Portu auzoa.

eta Mundakakoa. Mendi ibilaldi honetan, gidariak, erakutsi euskun zein zan Belarra deitutako olatua, Lapurdin dago, Hendaia eta Donibaneren artean, eta berezia ei da ekaitza dagoanean ikaragarria izan daitekelako. Gainera, kostatik bi kilometrorra apurtzen da, itsaso

zabalean.

Hurrengo egunean herria bera, erdigunea, ezagutzen joan ginan: urigune historikoa eta harrisia, etxeak eta jauregiak...

Gehien gustau jakuna Portu auzoa izan zan. Auzo honetan etxe askok euren balkoiak kolore



desbardinez apainduta daukiez eta irudi bitxia emoten deusie auzoari.

Arastian barku bat hartu eta ibilbide txiki bat egin genduzan Txingudiko badiatik. Hendaiaraino hurbildu ginan, eta gero apur bat, itsaso zabalerantza.

Konturatu barik hirugarren eguna heldu jakun eta paseo txiki bat emon eta gero Dimarantza abiatu ginan.

Oso ondo pasau genduzan.

AGENDEA

ZEMENDIAK 18 ARRATIA

Igitie alkarrean Gabonetako loteak eskatzeko epea zabalik zementiaren 30era arte. Otzara bi salgai: Leungane 30 euro eta Ixina 50 euro. Eskariak 605 728 358 edo 667 395 099 telefonoetan egin behar dira.

Hilaren 21era arte, izena emon daiteke Ilgoran Jabekuntza Eskolako Ibilbide Erosoak ekimenaren Otxandioko pagadietarako urtekerarako *ibilbiderosoak@gmail.com* helbidean edo 659 265 988 telefonora mezua bialduta.

BEDIA

18:30ean, 7-13 urte bitartekoentzako antzerkia *Futbolariak eta printzesak*. Liburutegian.

Hilaren 25era arte, Diguenu Africalaren *Afrikako emakumea naiz* argazki erakusketea liburutegian.

DIMA

Hilaren 29ra arte sinadura bilketea Kutxabank-ekoai astean bitan bulegoa zabalduko eskatzeko. Udaletxean.

IGORRE

Prozesu sortzaile genuinoaren garapena arte plastikoen bidez erakusketea hilaren 29ra arte. Kultur Etxean.

Zementiaren 29ra arte, Esaera Zaharren Bideo Lehiaketan parte hartzeako lanak bialtzeko epea zabalik. Igorreko zehar bide inguruetan dagozan esaera zahar baten erabilera adierazoten dauan egoera bat minutu bateko bideoan grabatu eta *esaerazaharak@igorre.net* helbidera bialdu parte hartzaileen datuakaz.

Hilaren 30era arte, Axular Kultur Elkartek antolatuta, *6 urte Kiñu iten* argazki erakusketea.

ZEANURI

Hilaren 24ra arte, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatutako hilaren 27ko bazkarian izena emetoko epea.

ZEBERIO

19:30ean, Austarri Mendi Taldeak

antolatutako Mendi Jardunaldiak *Aralar, mundua leku den lurra* filma. Udaletxeko aretoan.



ZEMENDIAK 19

ARTEA

19:00etan, *Volar* dokumentala eta protagonista baten testigantza eta solasaldia Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Mendi Jardunaldiak. Juanjo San Sebastianen *El viaje* berbaldua. Udaletxean.

ZEMENDIAK 20

LEMOA

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen proiektinoak. Arratiako Marimendien *Eslobakia zatitxo bat*. Jubiladuen lokalaren gaineko aretoan. Kirol Astea.

ZEANURI

18:00etan, zine morea Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 21

ARTEA

18:00etan, Arratiako Musika Eskolako Zezili Deunaren kalejireta Kultur Etxetik urtenda. Eguraldi txarra egin ezker, emonaldia eleizan.

IGORRE

18:30ean, Axular Kultur Elkartek antolatuta *Gantxillo* tailerra.

ZEBERIO

19:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Mendi Jardunaldiak. Sonia Casasen *Alpinismo en femenino* ikus-entzunezkoa. Udaletxean.

ZEMENDIAK 22

ARANTZAZU

20:30ean, antzerkia *Tomiris. Mendeku zilegi*

baten istorioa Kultur Gunean.

AREATZA

20:00etan, Areatzako Bandaren Zezili Deuna kontzertua Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz eleizan.



ARTEA

15:00etan, Zezili Deunaren jaialdia eskolan; 20:30ean, Rusted gitarrojolearen kontzertua Izar Zuri tabernan.

IGORRE

19:30ean, Konplizeak Antzerki Taldearen *Itzuliko naiz* antzezlan Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, umeen eskupelota partidua; 19:00etan, Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta, txirindularitzearen gaineko berbaldua, Joseba Beloki, David Lopez eta David Etxebarria txirindulari profesional ohiak, Kepa Zelaia, kirol medikua, Aina Hernandez kirol kazetaria eta Julen Agirre txirindularitzarako erropa diseinatzailea egongo dira; 21:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta bertso pelotea, Mikel Aurrekoetxea eta Imanol Arrese, eta Ander Elezkano eta Endika Garcia izango dira pelotariak; bertsolariak, Illart Gumuzio eta Igor Menika. Kiroldegiko frontoian. Kirol Astea.

ZEBERIO

18:00etan, BIZILABE Nerbioi-Ibazabal eskualdeko 14-17 urte bitarteko gazteen artean zientzia eta teknologia bultzatzeko

aisialdi-ekimena. *Nire App* mobikorreterako aplikazioak sortzeako tailerra KZgunean.

19:00etan, Udaleko Bardintasun Arloak eta Garaitzak antolatuta, *Umeak ez dute gezurrik esaten!* berbaldua, umeai egindako abusu sexualen gaineko. Udaletxeko 2. solairuan.

19:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Mendi Jardunaldiak. Zigor Egia alpinista eta segurtasun adituaren berbaldua eta *Alpinista batek utzitako ondarea* filma udaletxeko aretoan.

ZEMENDIAK 23

ARANTZAZU

08:30ean, plazan. Arginatx Mendi Taldearen urtekerea Alluitzera.

BEDIA

Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteko kideen bazkaria. 12:30ean, mezea alkatereko hildakoen memorian eta trikitixea; 14:30ean, bazkaria Batzokian eta trikitixea.

IGORRE

10:30ean, Kiñu Gaztetxean, Bildur Barik topaketea.

19:30ean, Luis Iruarrizaga Abesbatza eta Begoñako Garaizarko Matorriak Abesbatzaren Santa Zezilia kontzertua Kultur Etxean. Musika Eskolako eta ludotekako ikasleakaz.

LEMOA

11:30ean, Udalak antolatuta, skate tailerra eta erakustaldia skate parkean. Kirol Astea.

ZEANURI

Gorbeian jaikun. 11:00etan, Undurragako urtegia ibilbide gidatua; 13:00etan, txakolin dastaketea; 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 20:30era, pintxo potea herriko tabernetan; 16:00etatik 18:30era, Haur Gunea eta Multiabentura Gunea; 17:00etan, antzerkia *Kalean otso, etxean uso*; 18:30ean, Berriztu erromeria taldea Ikuskizun Gunean; 18:00etan, Info Gunean, *Artzantza* teaseraren 4 pase eta otzaren zozketea. Eguerdian, kantu poteoa Santa Zezilia ospatuteko.

ZEMENDIAK 24

IGORRE

09:30ean, Ilgoran Jabekuntza Eskolako Ibilbide Erosoak, ahalduntzea mendian ekimenaren urtekerea Otxandioko pagadietara.

17:30ean, zinea *Abominable*; 19:30ean, *Ad Astra*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

11:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko Guraso Elkartek antolatuta, duatloi txikia eskolan. Kirol Astea.

ZEANURI

08:30ean, Sagarnanean. Elosumendira urtekerea. Joko Alaik antolatuta.

ZEBERIO

Bertoko Produktuen XXI. Azoka.



ZEMENDIAK 25

IGORRE

19:00etan, Andranako Indarkeriaren

Kontrako Egunaren manifestazioa.

LEMOA

19:00etan, Olentzeroren gaineko batzarra udaletxean.

ZEMENDIAK 27

AREATZA

18:30ean, *Bostetatik bat? Haur eta gazteen kontrako sexu abusuaren sekretua hausten* berbaldua Udal Aretoan.

BEDIA

17:30ean, liburu-maleta ibiltaria, Ondiz Mendizabalen eskutik. Liburutegian.

ZEMENDIAK 28

DIMA

19:30ean, *(Des)kontrolatuta?* antzezlan Abaroa Aretoan.

ZEMENDIAK 29

ARTEA

20:30ean, Los Cosméticos taldearen kontzertua Ustrukue tabernan.

LEMOA

"Aske maite, aske bizi" lemapean; 18:30ean, berbodromoa Kulturguneko Gela Lilan; 20:00etan, poteo girotua Atxetik hasita; 20:30ean, egunari lotutako materialen zozketea. Udaleko bardintasun sailak, euskera zerbitzuak eta Zaplast talde feministek antolatuta.

IGORRE

18:00etan, Osabideak, Askatasuna ukatuta duten pertsonen osasun eskubideen aldeko sendagile eta legelarien Euskal Herriko Elkartek antolatuta, Itsaso Bengoetxea medikuaren berbaldua *Osasuna eta kartzela*. Kultur Etxean.

20:00etan, Olerki Topagunea Igorreko Udal Liburutegian. Poesia irakurraldia. Rapsodak: Pablo Cabañas, Ana Juez, Maria Jose Dominguez eta Eduardo L. Diaz "Zuhaitz". Flautea jotzen: Mikel Iglesias.

ZEANURI

San Andres jaiak Asterrian. 18:00etan, jaiak hasiketea emon bolanderak jaurtiaz; ondoren, herriko trikitilariak eta panderojoleak; 19:00etan, Igel Txapelketea; 21:30ean, auzo bazkaria eta afalostean, bingoa eta euskal tribalia.

ZEMENDIAK 30

IGORRE

XXVII. San Kristobaleko Mendi Martxea. 08:00etan, banku agiriak aurkeztu; 08:30ean, urtekerea.

17:30ean, Teatro Paraiso konpainiaren *Nomadak* antzezlan Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Mientras dure la guerra* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

11:30ean, Eguzkiola Kultur Elkartek antolatuta, erronkariaren gaineko berbaldua, *Iguzkiolako uskara* Alberto Angos erronkariaren aditu eta azken hitzunen eskutik, Eguzkiolan; 14:30ean, bertso-bazkaria. Babajana. Bertsolariak Orzi Idoate eta Arkaitz Estiballes. Tiketak Sagarnan, Jubiladuen tabernan eta Arteko Herriko Bentan salgai; 17:30ean, kantaldia Kantu Bat Gara taldeagaz. Eguzkiolan.

San Andres jaiak Asterrian. 12:00etan, mezea eta ostein herriko txistulariak eta barauskarria; 18:30ean, Biko desafioa, Irati Astondoa azkorian vs Mikel Etxebarria ardi mozten; 19:00etan, Harriti giza probetako andra taldearen hordagoa Zeanuriko mutilai harria tirituten; 20:30ean, odoloste jana; 21:00etan, gau jantzaldia: Jainaga eta Narbaiza. Ostein, DJ Tertzioan Etxera.

ABENDUAK 1

IGORRE

17:30ean, zinea *Playmobil* (euskeraz); 19:30ean, *Mientras dure la guerra* Lasarte Aretoan.



Alejandro Amenabarren pelikulea Igorren

Igorreko Lasarte Aretoko astegoienetako zine programazioan, *Mientras dure la guerra* Amenabarren pelikulea eskainiko dabe zementiaren 30ean, zapatuan 22:00etan, eta abenduaren 1ean, domekan, 19:30ean. Karra Elejaldek Miguel de Unamuno idazlearen papela egiten dau bertan.

Pelikulea 1936ko udan dago girotuta. Miguel de Unamuno idazleak 1936an Espainian ordena ezarriko dauan altxamentu militarra babestea ebatziko dau. Ebatzi horren ondorioz, gobernu errepublikanoak Salamancako Unibertsitateko errektore kargutik kendu eban. Francok, gatazka odoltsua sortu eta Unamunoren lagun eta lankideak espetxeratu zituan. Francok Salamancara eroan eban bere kuartela, eta han, eremu nazionalako estaduburu izentau eban.

AKIMIKO

I
m
a
n
O
l
a
t
u



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

TEILAK SALGAI

Baserrri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibariak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

DANERIK

LANGILE BILA

Axular Kultur Elkartearen astegoienerako behargin euskaldun bila gabiz. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu.

ETXEEN GARBIKUZIA

Etxeak garbitzeko nonor behar badozu, ez eizu dudarik egin. Deitu 632 426 687 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Zeanurin pisua alokagai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldia eta balkoia. Interesdunak deitu zenbaki honetara: 628 041 526.

LONJEA ALOKAIRUAN HARTZEAN DOT

Lemoan 80 eta 150 metro bitarteko

lonjea behar da alokairuan hartzeako.

Deitu 617 046 429 telefonora.

KOMERTZIALA BEHAR DA

Komertzial lanetarako persona bat behar da. Ez da esperientziarik behar. Interesdunak bialdu curriculum a info@behingoz.es helbidera.

BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baserri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Mientras dure la guerra* filma ikusteko.

Irati Urien (Zeanuri)
Maitane Uriarte (Zeanuri)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Nomadak* antzezlanerako.

Ainara Olazabalaga (Bedia)
Peli Aldape (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean meda
sem
e-ig
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semodu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 72

begitu
argitalpen txokoa

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietan, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 487 830 • 609 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tf: 94-673-70-87
Tf: 609-79-40-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29
Telefonoa: 94 673 60 14
IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Artatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26



Koktail menua 2019

Zure ekitaldi berezientarako, zeuretzat bakarrik zarratuten dogu gure kristalagaz inguratutako terraza estalia. Musikea, barra librea, pintxo eta aukera desbardinak

Pintxo hotzak

Txatka, otarrainxka eta saltsa arrosa ensaladillea
 Hegaluze ensaladillea urdaiazpiko iberikoagaz
 Izokina otarrainxkakaz eta gaztai freskoagaz
 Salmorejo txupittoa, arrautza eta urdaiazpikoagaz
 Hummus txupittoa ogi makilatxoakaz
 Intxaur ogia, urdaiazpikoa, piper berdea eta Idiazabalgo gaztaia
 Urdaiazpikoa, ahuntz gaztaia eta intxaurreak
 Gaztai eta onddo bonboia
 Urdaiazpikoa, galeper arrautzea eta patatea
 Umeentzat: tortillak, sandwichak, txistorra...
Bakotxak 1,4€

Pintxo beroak

Makailaoa pil-pil erara
 Foie eta sagarra
 Onddoak bere pil-pilean
 Kalabaza eta jengibre txupittoa
 Porru eta ganba krepea
 Olagarro eta patata brotxetean
 Otarrainxkak tenpuran
 Azelgea roquefort saltseagaz beteta
 Txanpinoi erreak alioli saltseagaz
 Etxeko krocketak
Bakotxak 1,4€

- 50 lagunentzako koktaila, adibidea: 6 pintxo + urdaiazpiko ebagitzailea + arroz eta fideua buffeta + barra librea bi orduz, 35,40€ personako
- Informazioa eta erreserbak 94 657 27 05 eta info@hotelbalnearioareatza.com helbidean
 - Gitxienez 5 pintxo mota - BEZa barne - Konsultau terrazako ordutegia
- Barra librea: 9€ personako eta orduko (ardaoak, garagardaoak, freskagarriak, cava)

Aukerak

- * Urdaiazpiko ebagitzailea bertan egoteko aukerea - 300 eurotik aurrera
- * Gaztai taula (4 gaztai mota gure ogi artisauakaz) - 180€
- * Arroz eta fideua buffeta - 150€
- * Ketuen aukerea: izokina, atuna, makailaoa - 210€

www.hotelbalnearioareatza.com

